

**58**

2022ko martxoaren 25a, ostirala

1**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

169/2022 Foru Agindua, martxoaren 17koa, 2021eko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga autolikidatzeko ereduak onartu, eta aurkezpena eta diru-sarrera egiteko moduak, epeak eta tokiak ezartzen dituena.

I

Aurreko urteetan bezala, 2021. urtea amaitzean itxi egin da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaldia, eta horrek zergaren sortzapena ekarri du berekin, izaera orokorrezt abenduaren 31n gertatzen dena. Eta aurreko urteetan bezala ere, orain zergapekoei dagokie zerga hori likidatzea.

Era berean, 2021. urtea amaitzean ondarearen gaineko zergaren sortzapena ere gertatu da, hala ezartzen baita zerga arautzen duen ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauan; hori dela eta, orain zergapekoei dagokie zerga hori ere autolikidatzea.

Horregatik, eta bi zerga horien foru arauetan aurreikusita dauden arau gaikuntzez baliatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak abian jartzen du bi zergak autolikidatzeko kanpaina, zeina foru agindu honetan xedatutakoari jarraituz egingo baita.

Iazko kanpaina bezala, aurtengoan ere jokabide indibidual eta kolektiboak osasun egoera oso aldakor batera egokitzen ari dira; alabaina, jarduteko tarte handiagoa da 2020ko nazioarteko pandemia deklaratu ondorengo lehen hilabeteetan izandako egoerarekin alderatuta. Azken aldiauetan nagusituz joan den «normaltasun» berri eta horren aldakor horri esker, orain posible da autolikidazioak modu seguruan aurkeztea, baita presentzialki egiten direnean ere.

Hori dela eta, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga autolikidatzeko kanpainak aurreko urteetan erabili diren hiru autolikidazio modalitateak mantentzen ditu, aurkezpen mekanizatua barne.

Dena den, modalitate bakoitzak hasiera data desberdin bat izango du, iazko kanpainan bezalaxe. Horrela, autolikidazio proposamenak onartu edo aldatzeko epea apirilaren 4an hasiko da, internet bidez aurkezteko epea apirilaren 7an, eta aitorpen mekanizatua egiteko epea apirilaren 19an. Modalitate guztiak 2022ko ekainaren 30ean amaituko dira.

Ondarearen gaineko zergaren autolikidazioa internet bidez jarraituko da aurkezten, oraingo honetan 2022ko apirilaren 7tik ekainaren 30era bitarte.

II

2021eko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arau esparrua, funtsezkoenean urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan jasota dagoena, ukituta gertatu da bai 2021. urterako zerga aldaketa jakin batzuk onesten dituen apirilaren 15eko 3/2021 Foru Arauagatik eta bai, pandemiaren faserik gogorrrena gainditu ondoren, «ad-hoc» diseinatu diren aldi baterako neurri ugariengatik, zeinen helburua izan baita aipatutako osasun krisitik ondorioztatutako egoera sozio-ekonomikoari aurre egitea, zaurgarritasun egoerak arintzea eta jarduera ekonomikoan jarraitutasuna eta suspertze ekonomikoa bultzatzea. Aldi baterako neurri horiek foru dekretu-arauen bidez onetsi dira.

Jarraian azaltzen dira xedapen horietan jasotzen diren aldaketa eta berrikuntza nagusiak.

II.1

11/2020 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 1ekoa, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoa.

Lanaren etekinak lortzeagatik 2021eko ekitaldiko zerga autolikidatzeko betebeharrari dagokionez, 12.000 eurotik 14.000 eurora igotzen da obligazio horren atalasea. Gainera, autolikidatzeko obligazio hori sortzen bada ordaintzaile batetik baino gehiagotik 14.000 eta 20.000 euro bitarteko lan etekin gordinak jasotzeagatik, ezartzen da zergaduna betebeharrak salbuespena geratzen dela baldin eta bigarren eta gainerako ordaintzaileetatik jasotako zenbatekoen batura, zenbatekoaren hurrenkerari jarraituta, urtean 2.000 eurotik gorakoa ez bada.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek emandako dirulaguntzei edo aparteko laguntzei dagozkien errentak salbuespena jotzen dira, baldin eta horiek ez badira norberaren konturako langileek edo langile autonomoek COVID-19ak eragindako osasun krisiagatik jasotako prestazio publikoak, izan arruntak izan apartekoak.

COVID-19a dela eta, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateetatik langabezia prestazio bereziak edo eskubide kontsolidatuenak kapital moduan jasotzen dituzten pertsonen kasuan, prestazio horiek 2021eko ekitaldira zabaltzen badira, ahalbidetzen da ekitaldi bakoitzean jasotako zenbatekoaren gainean 100eko 75eko integrazio portzentajea aplikatzea prestazio horiei dagokien lan etekin gordina kalkulatzeko.

Langileek entitate enplegatzailan parte hartzeagatik araututa dagoen kenkaria aplikatzeko baldintzak malgutu egiten dira, inbertsioa 2021ean egiten denean, eta berdin egiten da entitateak eratzeagatik aplikatzen den kenkariaren baldintzekin ere, entitateak 2021ean eratzen direnean.

2021. urterako luzatzen dira txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkaria, eta osasun langileen doako aseguru kolektiboaren salbuespena, 5/2020 Foru Dekretu-Arauan jasotakoak.

Gainera, 2021. urtera arte zabaltzen dira zerga tratamendu jakin batzuk malgutzeko lehendik onartutako zenbait neurri, hain zuzen ere, COVID-19aren osasun krisia dela eta zerga arloko neurri osagarriak ezartzen dituen maiatzaren 5eko 2/2020 Foru Dekretu-Arauan onartutakoak.

Besteak beste, epe hauek luzatzen dira: etxebizitza kontuetan sartutako kopuruak erabiltzeko epea, etxebizitzaren eraikuntza lanak exekutatzekoa, edo haren sustatzaileari konturako zenbatekoak ematekoa. Era berean, berrinbertitzeko epea ere luzatzen da ohiko etxebizitza beste berri bat erosi ondoren eskualdatzen den kasuetarako. Ondorio horietarako, etxebizitza kontuek 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko epemuga dutenean, urtebete luzatzen da dirua baliatzeko epea, eta inbertsioa egiteko epea 6 urtetik 7 urtera luzatzen da kasu horietan.

II.II

2/2021 Foru Dekretua-Araua, martxoaren 23koa, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituen.

Neurriak ezartzen ditu COVID-19agatik bereziki kaltetuta gertatu diren jarduera ekonomikoak garatzen diren lokalen errentamenduei laguntzeko. Horrela, 2021. urterako, aitortzen da alokairuaren errentan adostutako beherapena gastu kengarria izango dela, besteak beste, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarrian, baldin eta errentariak jarduera ekonomikoak egiten baditu.

Kapital higiezinaren eta kapital higigarriaren etekin garbiak zehazteko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ezarrita dauden mugak kontuan hartuta –haien arabera, etekin garbia ezin da izan negatiboa, higiezin bakoitzeko–, aurreikusten da kenkari gehigarri bat aplikatzea kuota osoan, hain zuzen ere, zerga oinarrian gastu gisa kendu ezin izan den beherapenaren 100eko 15ekoa.

Neurri horiek aplikatzeko, baldintza batzuk bete beharko dira.

Bestalde, 100eko 10eko aparteko kenkaria ezartzen da COVID-19aren ondorioz bereziki kaltetuta gertatu diren jarduera ekonomikoak berrabiarazten laguntzeko. Besteak beste, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotuta daudenek aplikatu ahal izango dute kenkari hori, 2021. urtean inbertsio jakin batzuk egiten badituzte.

Gainera, 2/2021 Foru Dekretu-Arauk TicketBAI betebeharra betetzeko eta txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako aurreikusita dauden kenkari fiskalak handitzen ditu, TicketBAI betebeharra lehenago betetzen hasten den kasuetan. Dena den, TicketBAI betebeharraren konplimendua bultzatzeko neurri gehigarri horiek uztailaren 27ko 4/2021 Foru Dekretu-Arauan daude behin betiko araututa. Xedapen hori aurrerago azalduko denez, neurri horien azalpena foru dekretu-arau horri dagokion atalean garatuko da.

II.III

3/2021 Foru Araua, apirilaren 15ekoa, 2021. urterako zerga aldaketa jakin batzuk onesten dituen.

Zergaren foru arauaren 89 ter artikuluko 1. apartatuan aipatuta dauden sorrera berriko entitate berritzaileekin lotuta, lau aldaketa sartzen dira. Alde batetik, ezartzen da ezen langileek eskuratutako akzio eta partaidetzen merkatuko balio normalaren eta akzio eta partaidetza horien eskurapen balioaren arteko diferentzia positiboa agerian jartzen bada entitate horien akzio edo partaidetzen gaineko aukerak baliatzeagatik, diferentzia ez dela gauza bidezko etekintzat hartuko aukera baliatzeko eskubide hori ematen denetik gutxienez hiru urte igaro ondoren gauzatzen bada.

Motibazio berberarekin aldatzen da akzioen gaineko aukerak arautzen dituen artikulua.

Bestalde, hirugarren aldaketak aurrezpenaren zerga oinarrian errentak integratu eta konpentsatzea arautzen duen 66. artikuluari eragiten dio. Kasu honetan, zilegi jotzen da entitate berritzaileen akzio edo partaidetzak kostu bidez eskualdatzeagatik gertatzen diren ondare galerak 10 urteko epean konpentsatzea (4koa da epe orokorra), akzio edo partaidetza horien harpidetzak eskubidea eman badu sorrera berriko entitate berritzaileak eratzeagatik 89 ter artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako kenkaria aplikatzeko. Azkenik, 89 ter artikuluan luzatu egiten da entitate bat «sorrera berrikotzat» hartzeko epea, eta epe hori bost urtekoa izatetik zazpi urtekoa izatera pasatzen da, eraketatik kontatuta. Bi neurri horiek 2020ko ekitaldirako ere onartu ziren.

Era berean, aipatzekoa da ezen, ohiko etxebizitzaren alokairuagatik araututako kenkariaren ondorioetarako, etxebizitza kooperatibetako edo beste elkarte mota batzuetako bazkideek edo irabazi-asmorik gabeko elkarteetako kideek ohiko etxebizitzagatik erabilera lagapeneko araubidean ordaintzen dituzten kanon edo errenta sozialak ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik ordaintzen diren kopuruekin parekatzen direla, kasu jakin batzuetan.

II.IV

3/2021 Foru Dekretu-Araua, ekainaren 15ekoa, COVID-19aren pandemiarekin lotutako zerga neurri gehigarriei buruzkoa.

Jarduera ekonomikoaren etekin gisa kalifikatzen dira Enpleguaren aldeko gizarte neurriak indartu eta sendotzen dituen urtarilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 5etik 8ra bitarteko artikuluetan eta Enplegua defendatu, ekonomia suspertu eta langile autonomoak babesteko presazko neurriei buruzko maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuak 6tik 9ra bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera jarduera uzteagatik jasotzen diren prestazioak, betiere aurreko beste foru dekretu-arau batzuek Estatuak aurretik onartutako antzeko laguntzetarako ezarri zuten bezala. Kalifikazio hori laguntzen indarraldia luzatzeari buruzko xedapenetara ere zabaltzen da.

II.V

4/2021 Foru Dekretu-Araua, uztailaren 27koa, TicketBAI betebeharra borondatez ezartzea sustatzeko presazko zerga neurriei buruzkoa.

Xedapenaren izenburuak aurreratzen duenez, foru dekretu-arau honek behin betiko finkatzen du TicketBAI betebeharraren konplimendua borondatez aurreratzea bultzatzeko pizgarrien edukia; izan ere, pizgarri horiek lehenago martxoaren 23ko 2/2021 Foru Dekretu-Arauk onartu bazituen ere, 4/2021 Foru Dekretu-Arauk aldatu zituen ondorioak izan aurretik, eta ez dira inoiz aplikatu beren jatorrizko idazkeran.

TicketBAI betebeharraren konplimendua borondatez aurreratzea bultzatzeko pizgarriak aldi baterakoak dira, eta bi kenkari direla medio gauzatzen dira: TicketBAI betebeharra borondatez

betetzea sustatzeko kenkaria eta txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari gehitua, TicketBAI betebeharra borondatez betetzea sustatzekoa, biak ere aipatutako 4/2021 Foru Dekretu-Arauren 1. eta 2. artikuluetan aurreikusiak, hurrenez hurren.

Horrela, TicketBAI betebeharraren konplimendua borondatez aurreratzea bultzatzeko pizgarriengatik aplikatu beharreko kenkari portzentajeak 100eko 60raino igotzen dira kenkari arruntaren portzentajearen aldean. Era berean, kenkariaren oinarria kalkulatzeko, beheko mugaren atalasea 1.500 euroraino handitzen da, muga arrunta 500 eurokoa denean.

Jakina, kenkari gehitu horiek aplikatzen dituzten zergadunek ezin izango dituzte kenkari arruntak aplikatu inbertsio eta gastu berberengatik.

II.VI

5/2021 Foru Dekretu-Araua, irailaren 7koa, TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkarien aurrerakin likido bat ezartzen duena.

TicketBAI betebeharra ezartzeak dakartzan eskakizunak borondatez betetzea bultzatze aldera, 5/2021 Foru Dekretu-Araua posible egiten du aurreko II.V apartatuan aipatu diren kenkari gehituak, 4/2021 Foru Dekretu-Arauan ezarritakoak, modu likidoan aurreratzea.

Aurrerakin likido hori aurreko lau zergaldietako autolikidazioei dagokien pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga itzuliz egingo da, eta zergadunak dagokion eskaera aurkeztuta abiatuko da (KTB ereduaren bidez).

II.VII

Kontuan izan behar da, gainera, 2021. urtean aldaketa ugari ere egin direla sozietateen gaineko zergan (baita ekitaldi horretaraino luzatu ere), eta horietako batzuek jarduera ekonomikoaren titular diren pertsona fisikoei eragin diezaikeke, bai jardueraren etekin garbia zehaztean, bai, bereziki, inbertsioengatik eta beste jarduera batzuek araututako kenkaria aplikatzean, hain zuzen ere, urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 88. artikuluan jasotakoa.

II.VIII

Erregelamendu mailan, abenduaren 22ko 33/2020 Foru Dekretuak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak kalkulatzearren 2021ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onesten dituenak, 2021. urtean aplikatzekoak diren eguneratze koefizienteak finkatzen ditu, bere izenak dioen bezala.

II.IX

Ondarearen gaineko zergari dagokionez, 2021eko zergaren autolikidazioan eragina duten aldaketak 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen martxoaren 10eko 1/2022 Foru Arauan sartu dira. Horien artean, jarraian aipatzen direnak nabarmendu daitezke.

Lurraldeko enpresa sarean berrikuntza garatzen jarraitzeko eta langileen parte hartzeak ere jarraipena izateko, ezartzen da sorrera berriko entitate berritzaileen akzio eta partaidetzen gaineko aukera eskubideak entitate horietako langileek jasotzen dituztenean salbuetsita geratzen direla, 2021erako zerga aldaketa jakin batzuk onesten dituen apirilaren 15eko 3/2021 Foru Arauan egindako aldaketarekin bat etorritz.

Salbuetsitako entitateen kapital edo ondare partaidetzen balioaren proportzioa kalkulatzeko, gerora etorritako ondaretasuna hartzen da kontuan. Erregela hori, salbuespenaz gozatzeko jada aurreikusita dagoena, haren irismenari dagokionez ere arautzen da orain. Horrela, salbuespen hori entitatearen ondare elementuei dagokien akzio edo partaidetzen balioaren zatira ere iritsiko da, baldin eta horien eskurapen prezioak ez badu gainditzen entitateak lortu dituen mozkin banatu gabeen zenbatekoa, betiere mozkin horiek jarduera ekonomikoetatik badatoz. Urtean bertan eta aurreko hamar urteetan lortutako mozkinen zenbatekoa izango da muga.

Entitateen akzio edo ondare partaidetzen balioari dagokionez, ezartzen da balio hori salbuetsita egongo dela museoetako edo irabazi-asmorik gabeko kultur erakundeei jendaurrean erakusteko eta gordailu iraunkorrean lagatzen zaizkien artelanen eta zaharkinen balioaren proportzioan. Gainera, lagatako artelan eta zaharkin horiek ez dira hartuko jarduera ekonomikoetako atxiki gabeko ondasuntzat, lagatako objektuen titulartasuna duten entitateen kapital edo ondare partaidetzei salbuespena aplikatzeko baldintzak betetzearen ondorioetarako.

III

Kanpainaren kudeaketari dagokionez, aurten ez dago berrikuntza aipagarriarik aurreko kanpainaren kudeaketak izandako garapenaren aldean.

Edonola ere, adierazi behar da kanpaina honetan jarraipena ematen zaiola hildakoen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren itzulketa eskatzeko jarraitu beharreko prozedurari, zeina 109H eskaera eredu aurkeztuz hasiko baita, «Hildakoen PFEZa itzultzeko eskaera» izeneko, itzulketa izapidetzeko nahiaez bete beharrekoa. Horretarako, foru agindu honek 109H eredu hori onesten du.

Horrenbestez, hau.

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

1. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2021eko autolikidazioa aurkezteko 109 eredu onartzea.*

Onarturik geratzen da «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa» izena duen 109 eredu, 2021eko zergaldiari dagokiona. Foru agindu honetako I. eranskinean ereduaren diseinu logikoak jasotzen dira, bitarteko elektronikoz eta fitxategi bidez aurkezten diren autolikidazioek bete beharrekoak.

2. artikulua. *109 eredu aurkezteko modalitateak.*

Bat. 2021eko zergaldiko «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa» aurkezteko erabili behar den 109 ereduak hiru aurkezpen modalitate ditu: autolikidazio proposamena, mekanizatua eta internet.

A) Autolikidazio proposamena.

1. Zergadunek autolikidazio proposamen bat jasotzen badute Ogasun Zuzendaritza Nagusitik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 103. artikuluan (aurrerantzean zergaren foru araua) eta

urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako zergaren Erregelamenduko 75. artikuluan (aurrerantzean zergaren erregelamendua) ezarritakoarekin bat, proposamen hori onartuz edo aldatuz aurkeztu ahal izango dute autolikidazioa.

Ogasun Zuzendaritza Nagusiak behar bezala beteta helaraziko die zergadun horiei autolikidazio proposamena. Nolanahi dela ere, zergadunek Ogasun eta Finantza Departamentuaren web atariaren bitartez eskuratu ahal izango dute autolikidazio proposamena, <http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/proposamena> helbidean sartuta.

2. Proposamenari adostasuna emateko edo hura hurrengo 3. zenbakian zehaztutako eran aldatzeko, zergadunak bide telefonikoa erabil dezake (943.113.000 zenbakira deituz), edo bestela, telematikoki egitea aukera dezake.

Adostasuna telefonoz ematen bada, proposamenean agertuko den kontraste datua adierazi beharko da.

Aldiz, adostasuna bide telematikoz emateko, modu hauetako batean jokatu beharko da:

a) Proposamenean jasotako kontraste datua erabiliz. Horretarako, beharrezkoa izango da Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean propio prestatutako zerbitzura jotzea, <http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/proposamena> helbidean sartuta. Proposamena berresteko edo aldatzeko prozesuan zehar, aplikazioak kontraste datua eskatuko dio erabiltzaileari.

b) Ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa arautzen duenak, 3. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz (aurrerantzean 320/2017 Foru Agindua).

Proposamena behin berretsita edo aldatuta, aurkeztutako autolikidaziotzat hartuko da.

3. Zergadunak erreparatzen badu proposamena ez datorrela bat bere zerga egoerarekin, proposameneko datu hauek aldatu ahal izango ditu:

a) Kapital higiezinaren etekinak, hala errenta orokorra eratzen dutenak nola aurrezpenaren errenta direnak.

b) Kenkari hauen datuak:

a') Ohiko etxebizitzaren alokairua.

b') Mezenasgoa. 100eko 20ko kenkaria aplikagarri duten dohaintzak baino ezingo dira aldatu.

c') Langileen sindikatuei ordaindutako kuotak.

Apartatu honetan apatzen diren aldaketak egiteko, ez da beharrezkoa egindako aldaketen frogagiririk aurkeztea, baina horrek ez du eragozten Zerga Administrazioak frogagiri horiek edozein unetan eskatzea zergadunari.

4. Zergadunak ez badu adierazten, ezarrita dagoen epean, proposamenarekin ados dagoela edo hura ez badu aldatzen epe horretan, jarduketa administratiboa ez dela egin joko da, eta zergadunak artikulua honetan ezartzen diren beste modalitateetako bat erabiliz aurkeztu beharko du autolikidazioa, betiere horretara behartuta badago.

B) Mekanizatua.

1. Zergadunek modalitate mekanizatuan aurkeztu ahal izango dute autolikidazioa baldin eta beren sarrerak zergaren foru arauko 6. artikuluan aipatzen diren errentetatik baldin badatoz, honako kasuotan izan ezik:

— Zergaren foru arauko 56 bis artikuluan langile lekualdatuentzat ezarritako araubide berezia aplikatzea aukeratzen dutenean.

— Jarduera ekonomikoen etekina zuzeneko zenbatespenaren modalitate arruntaren bidez kalkulatuzen dutenean, eta, orobat, etekin hori modalitate erraztuan kalkulaturik, zergaren foru arauko 88. artikuluan jasotako kenkarietara bilduta daudenean.

— Zergaren foru arauko 89 ter artikuluan hazkunde ahalmen handiko entitateak finantzatzeagatik jasotako kenkaria aplikatzea aukeratzen dutenean.

— 6.2 artikuluko e) letran aipatzen diren errentak lortzen dituztenean.

— Herentziaz edo legatuz eskuratutako ondasun eta eskubideak eskualdatzeagatik ondare irabaziak edo galerak izan dituztenean, betiere haien zehaztapenak kalkulu konplexuak egitea edo ondasunak baloratzea eskatzen badu; adibidez: herentziak esku hartzaile asko edo ondasun ugari dituztenean edo balorazioa behar duten higiezinak daudenean.

— Zergaldian zehar hamar ondare eskualdaketa baino gehiago egin dituztenean. Konputu horren ondorioetarako, negoziatzeko onartutako baloreen eskualdaketak kanpoan utziko dira, baldin eta haien tributazio araubidea negoziatzera onartutako baloreetatik eratorritako ondare irabazien hautazko tributazio araubidea bada, hau da, zergaren foru arauak hogeigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa.

— Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak, hain zuzen ere azaroaren 14ko 4/2016 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzen duenak, II. tituluan aurreikusitakoak.

Autolikidazioa modalitate mekanizatuan egiteko, zergadunek Ogasun eta Finantza Departamentuak hura aurkezteko dituen bulegoetako langileen laguntza izango dute. Foru agindu honen 5. artikuluan jasotzen da zeintzuk diren bulegoak.

2. Modalitate mekanizatua aukeratzen duten zergadunek, autolikidazioaren oinarri gisa erabiltzen diren frogagiriak bakarrik aurkeztu behar dituzte errenta mekanizatuko bulegoetan; 7. artikuluan zehazten da zeintzuk diren frogagiri horiek.

Aurrekoa eragotzi gabe, jarduera ekonomikoengatik errentak lortu eta haien etekin garbia modalitate erraztuaren arabera kalkulatuzen duten zergadunek 109 ereduaren 6. eranskina aurkeztu behar dute, dagokionaren arabera, behar bezala beteta. Eranskin hori foru agindu honetako II. eranskin gisa ageri da. Aipatutako 6. eranskina Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik inprimatu daiteke (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik (<http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta>) edo, bestela, Zergabidea plataforman dagoen laguntza programatik.

C) Internet.

1. Zergaren zergadun guztiek aurkez dezakete autolikidazioa internet bidez.
2. Internet bidezko modalitatean, fitxategi elektronikoak bide telematikoz bidalita aurkeztu behar da autolikidazioa, eta fitxategi horiek bete behar dira foru agindu honetako I. eranskinean ageri diren diseinu logikoen arabera.

Bat apartatu honetako A) letraren 4. zenbakian jasotako kasuetan, prestatutako proposamena Zergabidea plataformara jaitsi ondoren, zergadunaren egoerara egokitutako autolikidazioa egiteko erabili ahal izango da, eta C) letra honetan araututako internet modalitatean aurkeztu ahal izango da, modalitate horretarako jarritako erregelei jarraituz.

Aurkezpen hori Zergabidea plataformatik egingo da, foru agindu honetako III. kapitulan jasotako prozedurei jarraituz.

Bi. 320/2017 Foru Aginduaren 1.1 artikuluan jasotakoaren arabera, ordezkari «profesionalak» diren pertsona edo entitateek nahitaez internet bidez aurkeztu behar dituzte autolikidazio guztiak.

Hiru. Autolikidazioa modalitateetako batean aurkezteak gainerako aurkezpen moduak baztertzea dakar.

Bereziki, autolikidazioa internet bidez aurkezten bada, ezin izango da berriro aurkeztu beste ezein modalitatetan, autolikidazio proposamena izan edo mekanizatua izan.

3. artikulua. 109 eredua aurkeztera behartuak.

Bat. 2021. urtean zergaren foru arauaren 6. artikuluan aipatutako errentak lortu dituzten zergadunak daude behartuta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkeztera, betiere aipatutako foru arauaren 101. artikuluan (abenduarien 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauak, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoak, 5. artikuluan emandako idazkeran) eta zergaren erregelamenduko 73. eta 74. artikuluetan ezarritako muga eta baldintzen barruan.

Bi. Autolikidazioa aurkeztera behartuta dauden zergadunek, autolikidazioa aurkeztearekin batera, kuota diferentziala zehaztu behar dute, eta hala badagokio, baita zerga zorra kalkulatu eta ordaindu ere foru agindu honetan ezarritako tokian, moduan eta epeetan.

4. artikulua. Aurkezteko epeak.

Autolikidazioa aurkezteko epeak honako hauek izango dira, aukeratutako aurkezpen modalitatearen arabera:

— Autolikidazio proposamena: 2022ko apirilaren 4tik ekainaren 30era bitartean, proposamena onartu edo aldatzeko.

— Internet: 2022ko apirilaren 7tik ekainaren 30era bitarte.

— Mekanizatua: 2022ko apirilaren 19tik ekainaren 30era bitarte.

5. artikulua. Autolikidazioa modalitate mekanizatuan aurkezteko tokia.

Autolikidazioak modalitate mekanizatuan aurkezteko, jarraian aipatzen diren Ogasun eta Finantza Departamentuaren bulegoetara jo beharko da. Ondorengo udalerrri edo zonetan bizi diren zergadunek horietara joan beharko dute beren autolikidazioak aurkezteko:

— Azpeitiko bulegoa: Julian Elortza hiribidea, 3.

Herri hauetako zergadunak: Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bidania-Goiatz, Errezil, Zestoa eta Zumaia.

— Beasaingo bulegoa: Urbialde kalea, 1.

Herri hauetako zergadunak: Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga.

— Bergarako bulegoa: Toki Eder plaza, 5.

Herri hauetako zergadunak: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati.

— Eibarko bulegoa: Arragueta kalea, 2.

Herri hauetako zergadunak: Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluze.

— Hernaniko bulegoa: Latxunbe Berri, 8 eta 9.

Herri hauetako zergadunak: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta.

— Irungo bulegoa: Frantzisko Gaintza kalea, 1 atzealdea (Iparralde hiribidetik sartuta).

Herri hauetako zergadunak: Hondarribia eta Irun.

— Erreneriako bulegoa: Santa Klara plaza, 2.

Herri hauetako zergadunak: Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Erreneria.

— Tolosako bulegoa: San Frantzisko kalea, 45.

Herri hauetako zergadunak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Legorreta, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil.

— Donostiako bulegoa: Antso Jakituna hiribidea, 9.

Herri hauetako zergadunak: Aia, Getaria, Orio, Usurbil eta Zarautzen bizi direnak eta Donostiako Amara Berri eta Amara Zaharra auzoetakoak.

— Donostiako bulegoa: Sekundino Esnaola kalea, 10-12.

Donostiako zergadun hauek: Altza, Egia, Gros, Intxaurren, Bidebieta eta Mirakontxakoak, Erdialdea, Alde Zaharra, Loiola eta Martutenekoak, eta Donostiako gainerako zonetakoak.

— Donostiako bulegoa: Errotaburu pasealekua, 2.

Donostiako zergadun hauek: Igeldo, Ibaeta, Añorga, Antigua eta Aiete auzoetakoak.

Autolikidazioa modalitate mekanizatuan aurkezteko hitzordua 2022ko apirilaren 12tik ekainaren 8ra bitartean eskatu ahal izango da. Epe hori amaituta, ez da hitzordurik emango modalitate mekanizaturako, non eta ez dauden bulegoak oraindik hitzordu libreak dituztenak. Horrelakoetan, agortu arte emango dira.

6. artikulua. Kuotak ordaindu eta itzultzeko era eta epeak.

Bat. Autolikidaziotik ateratzen den kuota bankutik helbideratuta ordaindu edo itzuliko da, 320/2017 Foru Aginduak 4. artikuluan jasotakoari jarraituz. Ondorio horietarako, onartuko da helbideratze kontuak entitate laguntzaileetan edo bestelako kreditu entitateetan irekita egotea.

Gainera, ordainketa edo itzulketa egiteko, hurrengo apartatuetak berezitasunak hartuko dira kontuan.

Bi. Autolikidazioetan emaitza ordaintzekoa denean, adierazi beharko da dena batera ordaindu nahi den edo, zergaren erregelamenduko 76.2 artikuluan jasotzen duen moduan, bi zatitan ordaintzea aukeratzen den.

Zor osoa edo, hala badagokio, lehen ordainketa zatikatua 2022ko uztailaren 1ean kargatuko da helbideratze kontuan.

Zatikapenaren bigarren ordainketa 2022ko azaroaren 10ean kargatuko da helbideratze kontuan.

Hiru. Autolikidazioen emaitza ordaintzekoa den kasuetan, behin autolikidazioak aurkeztu ondoren, aukeran izango da diru-sarrera ordainketa-pasabidea erabilia egitea edo entitate laguntzailearen bidez egitea, ordainketa gutuna aurkeztuta. Aukera hori egiteko eta kuota ordaintzeko, 320/2017 Foru Aginduaren 4. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoari jarraituko zaio.

Diru-sarrera entitate laguntzaile batean egitea aukeratzen bada (ordainketa-gutuna erabilia beraz), aukera hori egiteko eta ordainketa-gutuna lortzeko, jarraian azaltzen diren moduak erabili daitezke:

a) Ordainketa-gutuna inprimatuz, 320/2017 Foru Aginduaren 4.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, egoitza elektronikoa eskura dagoen zerbitzua erabilia.

b) Zergaduna edo haren ordezkaria Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan agertuz edo departamentuak Donostiako Errotaburu pasealekuko 2. zenbakian duen kudeaketa bulegora bertaratzuz, ordainketa gutuna eskatzeko.

c) Autolikidazioa aurkezteko unean, modalitate mekanizatuan aitortzen duten zergadunak direnean.

Nolanahi dela ere, diru-sarrera beti egin beharko da bigarren apartatuan aurreikusitako epeak amaitu baino lehen.

Lau. Ordainketa ez bada ezarrita dagoen epean egiten, bide exekutiboa hasiko da, hala xedatzen baitu martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 165.1.b) eta 165.3 artikuluetan.

Lehen epeko diru-sarrera ez bada egiten, zerga-billetako epe exekutiboa hasiko da, eta zor osoa premiamenduzko prozeduraren bidez bilduko da.

7. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Bat. Oro har, modalitate mekanizatuan eta internet bidezkoan, autolikidazioa aurkeztearekin batera, zergadunak hurrengo bigarren apartatuan zerrendatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du, salbuespen hauekin:

A. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2020ko autolikidazioa aurkezteko modalitate mekanizatu erabili zuten zergadunek modalitate hori bera aukeratzen badute 2021eko zergaldia autolikidatzeko, ez dituzte aurkeztu behar ondoren zerrendatzen diren agiriak:

a) Familia Liburuaren kopia edo Erregistro Zibileko erregistro elektroniko indibidualaren ziurtagiria, salbu eta haren osaerak aldaketaren bat izan badu edo familia 20201. urtean eratu bada.

b) Ohiko etxebizitzaren salerosketa jasotzen duen eskritura publikoaren kopia, betiere aurreko ekitaldiaren aldean bere egoeran aldaketarik gertatu ez bada.

Era berean, hurrengo agirien kasuan, kopiak aurkeztu beharrean aski izango da jatorrizko agiriak aurkeztea:

a) Nortasun agiri nazionala.

b) Birgaitze lanak babestutzat jotzen dituen ebazpena eta obra amaitu izanaren ziurtagiria; eta birgaitze lanak hainbat ekitalditan egiten badira, urteko ziurtagiria.

B. Zergadunak internet bidez aurkezten badu autolikidazioa, ez du inolako frogagiririk aurkeztu behar, baldin eta datuak Zerga informazioa atalean erregistratuta badaude. Informazio hori Gipuzkoatarian eskuratu daiteke. Hortaz, horrelako kasuetan, atal horretan jasota ez dauden eta zerga autolikidatzeko beharrezkoak diren datuen frogagiriak baino ez dira aurkeztu beharko, eta kontzeptu horiek izan daitezke: erregistratu gabeko sarrerak, errentan emandako ondasun higiezin gastuak, etxebizitzan inbertitzeagatik kengarriak diren konturako ordainketak, ondare irabazi eta galerak zehazteko aintzat hartu beharreko baloreak eta abar.

Internet bidez aurkeztu den autolikidazioa egiteko ez bada beharrezkoa izan Zerga informazioa atalean jasotakoaz besteko informaziorik erabiltzea, ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu behar.

B letra honen aurreko paragrafoetan aurreikusitakoa gorabehera, ohiko etxebizitza 2021. urtean erosi duten zergadunek egindako inbertsioaren dokumentazioa aurkeztu beharko dute beti.

Bi. Aurreko lehen apartatuaren arabera aurkeztu behar den dokumentazioa honako hau da:

1. Zergadun bakoitzaren eta hamalau urtetik gorako ondorengo ahaideen nortasun agiri nazionalaren kopia, edo, hala badagokio, atzerritarraren identifikazio zenbaki pertsonala edo identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzen dien agiri ofizialaren kopia, eta, egonez gero, familia liburuaren orri guztien fotokopia edo Erregistro Zibileko erregistro elektroniko indibidualaren ziurtagiria.

Eusko Jaurlaritzako maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteen kasuan, legearen 3. artikuluan aipatzen den erregistroaren ziurtagiria, izatezko bikotea bertan inskribatu dela edo, hala badagokio, desegin egin dela adierazteko.

Ezkontzako lotura hautsi bada ezkontideak banandu edo dibortziateagatik, ebazpen judizialaren kopia eta, halakorik bada, hitzarmen arautzailearena, edo, bestela, ebazpen horretatik eratorritako ondorio ekonomiko eta pertsonalen lekukotza judizialarena.

Guraso ahal luzatu edo birgaitupean dauden seme-alaba adindunen ezgaitasunari buruzko erabaki judiziala, familia unitateko kide izatea dakarrena, ezgaitasuna aitortu duen sententzia aurkeztuz frogatuko da.

2. Errenta, gastu, murriztapen, atxikipen eta konturako sarreraren honako frogagiriak:

a) Atxikitzaileen ziurtagiria (10-T eredu), lan pertsonalaren etekinengatik izandako etekinak, gastuak, atxikitako zenbatekoak edo konturako sarrerak adieraziko dituen. Horren ezean, soldaten ordainagiriak edo aski diren bestelako frogagiriak aurkeztuko dira.

b) Langile autonomoen erregimen berezian zergadunak kotizatutako kopuruen frogagiriak, lan etekinen gastu kengarri gisa konputatzen badira.

c) Kargu politiko hautetsiek eta izendapen librekoek euren erakunde politikoari nahitaez egindako ekarpenen ziurtagiria, erakundearen organo eskudunak luzatua.

d) Lanaren hobari gehitua aplikatzeko, hauetako bat aurkeztu beharko da: zergaren erregelamenduak 63. artikuluan jasotakoaren arabera egindako ziurtagiria, desgaitasun graduari eta mugikortasun murriztuaren egoerari buruzkoa; ezintasuna aitortzen duen sententzia judizialaren kopia; edo, bestela, ezintasun iraunkorra jasateagatik Gizarte Segurantzak edo klase pasiboen erregimen bereziak aitortutako prestazioaren titular izatearen frogagiria.

Dena den, desgaitasuna frogatzeko, Zuzenbidean onartzen den beste edozein frogabide erabili aha izango da.

e) 10-I eredu, behar bezala beteta, ondasun higiezinak errentan emateagatik lortutako etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak ziurtatzeko. Ondasun higiezinaren errentamenduak atxikitzeko obligaziorik ez dagoenean, lortutako etekinen ziurtagiria aurkeztuko da.

Era berean, errentan edo azpierrean emandako ondasun higiezinengatik sortutako gastuen frogagiriak aurkeztu beharko dira.

f) Landa eta hiri ondasun higiezinak edo horien gaineko eskubide errealak lagatzeagatik sortutako etekin eta gastuen frogagiria, aurreko letran aipatutako lagapenak ez direnean.

g) Atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako jardura ekonomikoetan aritzen diren zergadunek izandako atxikipenen frogagiriak.

h) Errentak esleitzeko araubidean dagoen entitateak luzatutako frogagiria, datu hauek adierazita: entitatearen errenta osoa, eta zergadunari bazkide, oinordeko, komunero edo partaide gisa esleitutako errenta eta konturako ordainketak.

Hala badagokio, zergaren foru arauak 6.2.e) artikuluan jasotakoaren arabera zerga oinarrian sartu behar diren errenta egotzien frogagiria ere aurkeztuko da.

i) Ezkontideen artean edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikoteko kideen artean pentsio konpentsagarriak ordaintzera eta urteko mantenurako

ordainketak egitera –zergadunaren seme-alaben alde finkatutakoak izan ezik– behartzen duen erabaki judizialaren fotokopia, ordainketak benetan egin izanaren frogagiriak, eta ordaintzailearen eta jasotzailearen errolda agiriak.

Erabaki judizialaren orde, ebazpenetik eratorritako ondorio ekonomiko eta pertsonalak frogatzen dituen epaiaren lekukotza judiziala aurkeztu daiteke.

j) Honako hauek egindako ziurtagiria: pentsio planen entitate kudeatzaileak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentarauan aipatutako pentsio funtsek edo, halakorik bada, haien entitate kudeatzaileek, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateak, gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, edo aurreikuspen plan aseguratua, enpresen gizarte aurreikuspen planak edo mendekotasun ertainerako edo handirako arriskua bakarrik estaltzen duten aseguru pribatuak merkaturatzen dituen aseguru entitateak. Ziurtagiri horretan jaso behar dira partaide bakoitzak, bazkide oso edo arrunt bakoitzak, edo mutualista edo aseguratu bakoitzak indibidualki eman dituen zenbatekoak edo ordaindu dituen primak, eta, orobat, sustatzaileek, bazkide babesleek edo hartzaileek egotzitako zenbatekoak. Pentsio plan aseguratua egin badira, horiek merkaturatzen dituen entitatearen ziurtagiria ere aurkeztuko da, ordaindutako primak bertan jasota.

Ekarpenak desgaituen alde eratutako gizarte aurreikuspeneko sistemei egin bazaizkie, eta ekarpen-egileak ahaidetasun edo tutoretza harreman batengatik badaude lotuta desgaituarekin, dokumentazio hau ere aurkeztu behar da, ahaidetasun harremana eta zerga oinarria murrizteko eskubidea ematen duen desgaitasun gradua frogatzen duten agiriekin batera:

— BGAEei egindako ekarpenen kasuan, atxikimendu kontratua eta entitateak luzatutako ziurtagiria. Ziurtagiri horretan, entitateak adierazi behar du zeintzuk diren onuradunak kontingentzia bakoitzaren kasuan, zer pertsonak egin dizkioten BGAEari ekarpenak, eta ekarpen horiek zenbatekoak izan diren.

— Gizarte aurreikuspeneko gainerako sistemetan egindako ekarpenen kasuan, entitate kudeatzailearen, mutualitatearen edo aseguru entitatearen ziurtagiri bat, zeinak frogatu behar baitu dena delako plana edo asegurua desgaituen alde eratuta dagoela, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginak laugarren xedapen gehigarrian jasotakoari jarraituz.

k) Ondare irabazi eta galeren frogagiriak, besteak beste, honako datuok adierazita: eskuratze eta eskualdatze balioak, eskuratze eta eskualdatze datak eta, hala badagokio, jasandako atxikipenak.

3. Kuotako kenkariak aplikatzeko behar diren frogagiri hauek:

a) Gurasoa seme-alaben urteko mantenua ordaintzera behartzen duen erabaki judizialaren kopia, eta ordainketa hori benetan egin dela frogatzen duen agiria. Erabaki judizialaren orde, hartatik eratorritako ondorio ekonomiko eta pertsonalak frogatzen dituen epaiaren lekukotza judiziala aurkeztu daiteke.

b) Tutoretza edo harrera arrazoiengatik zergadunarekin lotuta dauden adingabeen kasuan, tutoretza eratu duen erabaki judiziala aurkeztuko da, edo, bestela, 2021. urtean adingabeak etxean hartu izanaren ziurtagiria, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak luzatua.

c) Aurreko ahaideen kenkaria aplikatu ahal izateko, haien errolda-agiria eta izan dituzten diru-sarrerena aurkeztu behar dira. Aurreko ahaideak ez badu jasotzen Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak, Klase Pasiboen Erregimen Bereziak edo horien ordezkoko entitateek onartutako prestaziorik, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak luzatutako ziurtagiria aurkeztuko da pentsioduna ez dela frogatzeko.

Aurreko ahaidea egoitza batean bizi bada urte osoan, etengabe eta modu jarraituan, aurkeztu beharko da egoitzako gastuei aurre egiteko ordaindu beharreko kopuruen frogagiria (faktura), bai eta ondorengo ahaideak/ek horiek ordaindu izanaren agiria.

d) Desgaitasunaren edo mendekotasunaren kenkaria aplikatzeko, desgaitasuna aitortzen duen sententzia judiziala aurkeztu behar da, edo bestela, desgaitasuna edo mendekotasuna frogatzen duen ziurtagiria, haien kalifikazioa ere ekarri behar duena, zergaren erregelamenduko 63. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Desgaitua edo mendekoa aurreko ahaidea, zeharkako ahaidea, tutoretzapean edo harreraren hartutakoa, edo 65 urte edo gehiago duen pertsona denean, desgaitasunaren edo mendekotasunaren kenkaria aplikatzeko, bizikidetzaz ziurtagiria aurkeztu behar da.

Desgaitasuna edo mendekotasuna duen pertsona egoitza batean bizi bada, pertsona horren egonaldi gastuei aurre egiteko ordaindu beharreko diru kopuruen ordainagiria (faktura) aurkeztu behar da, bai eta kenkaria aplikatzen duen/duten zergadunak/ek horiek ordaindu izanaren agiria ere.

Era berean, desgaitua edo mendeko pertsona zergadunarekin bizi denean, haren diru-sarreraren ziurtagiria aurkeztu behar da. Pertsona horrek ez badu jasotzen Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak, Klase Pasiboen Erregimen Bereziak edo horien ordezkoko entitateek onartutako prestaziorik, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak luzatutako ziurtagiria aurkeztuko da pentsioduna ez dela frogatzeko.

e) Desgaituaren ondare babestuaren alde egindako ekarpenen kenkaria aplikatzeko, ondare babestua eratu izana frogatzen duen agiri publikoaren edo ebazpen judizialaren kopia aurkeztu behar da, bai eta ekarpena frogatzen duen agiri publikoaren edo ebazpen judizialaren kopia ere.

Era berean, ondare babestuaren titularrarekin duen ahaidetasun harremanaren frogagiria ere aurkeztu behar da.

f) Ohiko etxebizitza errentan hartu bada, kenkaria aplikatzeko, errentamendu edo azpierrementamendu kontratuaren kopia eta alokairuagatik errentatzaileari edo azpierrementatzaileari egindako ordainketen frogagiriak aurkeztu behar dira. Familia ugarien kasuan, familia ugaria direla frogatu beharko da. Behar den kasuetan, zergaduna familia etxebizitzaren alokairua ordaintzera behartzen duen ebazpen judiziala aurkeztuko da edo, bestela, ebazpenetik eratorritako ondorio ekonomiko eta pertsonalak frogatzen dituen epaiaren lekukotza judiziala.

g) Kenkaria aplikatu nahi bada ohiko etxebizitza erosteagatik, etxebizitzan inbertitutakoaren frogagiri hauek aurkeztuko dira:

— Eraikitzen ari diren etxebizitzak direnean, ordaindutako kopuruen frogagiria eta, hala badagokio, salerosketa kontratua.

— Eraikita dauden etxebizitzak direnean, salerosketa jasotzen duen eskritura publikoaren kopia.

— Etxebizitza birgaitu denean, birgaitze lanak babestutzat jotzen dituen ebazpenaren kopia, ordaindutako diru-kopuruen frogagiria eta obra amaitu izanaren ziurtagiriaren edo, urte bat baino gehiago hartzen duten obren kasuan, urteko ziurtagiriaren kopia.

— Etxebizitza-kontuan egindako diru ezarpenen kasuan, kontua ireki den entitateak luzatutako ziurtagiria aurkeztuko da, bertan honako datuak adierazita: kontua identifikatzen duen banku-kodea, irekitze eguna eta egun horretatik aurrera izandako mugimenduak.

Funtsak erabili badira kontua edo kreditu entitatea aldatu delako, aurreko paragrafoan aipatutako ziurtagiria itxi den kontuagatik nahiz entitate berean edo beste batean ireki denagatik aurkeztuko da.

— Mailegua eskatu bada, behar diren frogagiriak aurkeztuko dira.

— Familia ugarien titularrek familia ugari direla frogatu beharko dute.

— Ebazpen judizial baten ondorioz zergaduna behartuta badago familia etxebizitzaren inbertsioak, interesak edo gastuak ordaintzera, ebazpenaren kopia bat edo, bestela, hartatik eratorritako ondorio ekonomiko eta pertsonalak frogatzen dituen epaiaren lekukotzat judiziala aurkeztuko da.

h) Sozietateen gaineko zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak V. tituluaren III. kapituluan eta hamabosgarren xedapen gehigarrian inbertsio eta bestelako jarduerengatik jasotzen duen kenkaria aplikatzeko, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: inbertsio edo gastua frogatzen duten fakturak, inbertsioaren azalpen txosten laburtua eta, hala behar denean, 2/2014 Foru Arauan eskatutako dokumentazioa.

Orobat, egindako inbertsioak eta gastuak justifikatzen dituzten fakturak aurkeztuko dira, horiek deskribatzen dituen memoria labur batekin batera, ondoren adierazten diren kenkariak aplikatzeko:

— Txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkaria, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzko abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauaren 15. artikuluan aurreikusia.

— Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatikoaren ezarpena sustatzeko kenkaria, zergaren foru arauaren hogeita hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarria.

— TicketBAI betebeharra borondatez betetzea sustatzeko kenkaria, TicketBAI betebeharra borondatez ezartzea sustatzeko presazko zerga neurriei buruzko uztailaren 27ko 4/2021 Foru Dekretu-Arauaren 1. artikuluan aurreikusia.

— Txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari gehitua, TicketBAI betebeharra borondatez betetzea sustatzeko, TicketBAI betebeharra borondatez ezartzea sustatzeko presazko zerga neurriei buruzko uztailaren 27ko 4/2021 Foru Dekretu-Arauaren 2. artikuluan aurreikusia.

Ez da beharrezkoa izango egindako inbertsio eta gastuen fakturak eta deskripzio memoria laburra berriro aurkeztea aurreko paragrafoan zerrendatutako kenkarietako bat justifikatzeko, baldin eta dokumentazio hori aurretik aurkeztu bada esandako beste kenkarietako bat justifikatzeko.

Era berean, egindako inbertsioen fakturak eta deskripzio memoria laburra aurkeztu beharko dira honako kenkaria aplikatzeko: COVID-19aren ondorioz bereziki kaltetutako jarduera ekonomikoen garapena berrabiarazten laguntzeko aparteko kenkaria, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituen martxoaren 23ko 2/2021 Foru Dekretu-Arauaren 3. artikuluan aurreikusia.

i) Langileek entitate enplegatzailean parte hartzeagatik zergaren foru arauaren 89. artikuluan arautzen den kenkaria aplikatzeko, betiere COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzko abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Aruak 3. artikuluan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta, honako hauek frogatuko dira:

— Zergadunak zer kantitate ordaindu dituen berak lan egiten duen entitateko edo taldeko beste edozein enpresatako akzio edo partaidetzak eskuratu edo harpidetzeko, edo, hala badagokio, entitate horietako langileek bakarrik partaidetutako entitateen akzio edo partaidetzak eskuratu edo harpidetzeko, azken kasu horretan baldin eta entitate partaidetuaren aktiboaren gutxienez 100eko 90 enpresa enplegatzailearen edo taldeko entitatearen akzio edo partaidetzak eratzen badute.

— Entitate enplegatzailean edo taldeko entitateetan emandako antzintasuna 89. artikuluen 1. apartatuan aurreikusitakoa dela.

— Akzioen eta aktiboaren osaketari dagozkion beharkizunak betetzen direla, baldin eta inbertsioa 89.1 artikuluko c) letran aipatutako langileek bakarrik partaidetutako entitateetan egin bada.

— Akzioak edo partaidetzak ez direla negoziatzen merkatu arautuetan, eta entitatea ez dela hartzen ondare sozietatetzat, 89. artikuluen 4. apartatuko a) eta b) letretan ezartzen den moduan.

— Langilearen partaidetza, 89. artikuluen 4. apartatuko e) letran jasotako beharkizuna betetzearen ondorioetarako.

j) Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, aipatzen dituen dohaintzen kenkaria aplikatu ahal izateko, honako frogagiri hau aurkeztu beharko da: aipatutako foru arauaren 25. artikuluan eta azaroaren 2ko 87/2004 Foru Dekretuak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga araubidea eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak aplikatzeko Erregelamenduari buruzkoak, II. kapituluaren aurreikusitakoa edo, bestela, 3/2004 Foru Arauaren 29.4 artikuluan aipatutakoa.

Otsailaren 11ko 2/2019 Foru Arauak, kultur mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoak, 15. artikuluan aipatzen dituen dohaintzen kenkaria aplikatzeko, kultur mezenasgoa jaso duen pertsona edo entitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, haren bidez frogatzeko dohaintzak, erabilera maileguak edo lankidetzak hitzarmenen ondorioz egindako gastu kengarriak egiazkoak direla eta interes sozialeko kultur proiektu edo jardueretarako erabili direla.

k) Kenkaria aplikatu nahi bada langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik eta alderdi politikoen aldeko kuota eta ekarpenengatik, honako hau aurkeztu behar da:

— Erakunde sindikalari ordaindutako kuoten ziurtagiria, sindikatuko organo eskudunak luzatua.

— Afiliazio kuotengatik eta, zergaren foru arauak 22.b) artikuluan aipatzen dituen derrigorrezko ekarpenekin zer ikusirik izan gabe, alderdi politikoen aldeko ekarpenengatik ordaindutako kopuruen ziurtagiria, erakunde politikoaren organo eskudunak luzatua.

l) Enpresa berrietan edo sortu berrietan inbertitzeagatik zergaren foru arauaren 89 bis artikuluan arautzen den kenkaria aplikatzeko, artikuluko horren 6. apartatuan xedatutakoarekin bat luzatutako ziurtagiria aurkeztuko da.

m) Zergaren foru arauko 89 ter artikuluan hazkunde ahalmen handiko entitateak finantzatzeko arautzen den kenkaria aplikatzeko, honako dokumentazioa:

— Eskuratutako akzio edo partaidetzak eskualdatu dituen entitatearen ziurtagiria, zergadunak zergaldian egin duen inbertsioa adierazi behar duena, eta 89 ter artikuluko baldintzak eta beharkizunak betetzen direla ziurtatu.

— 89 ter.1.a) artikuluan a') letran aipatzen den txosten arrazoituaren kopia, eta 89 ter.2 artikuluan administrazioa aurrez lotesteko prozedurari buruz aipatzen den aldeko ebazpenaren kopia.

n) Zergaren foru arauaren 89 quater artikuluan langileek entitateak eratzeko aurreikusten den kenkaria aplikatzeko, betiere COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzko abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauak 4. eta 19.Bat.7 artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta, akzio edo partaidetzak zein entitateetatik eskuratu dituen eta hark luzatutako ziurtagiria aurkeztu beharko da, zergadunak zergaldian egin duen inbertsioaren zenbatekoa eta aipatutako artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen direla adieraziz.

4. Ezkontideek edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko kideek banakako autolikidazioak aurkeztu dituztenean, nahikoa izango da bion dokumentazioa aurkeztutako autolikidazioetako bakar bati erantzea.

5. Ohiko bizilekua Gipuzkoako Lurralde Historikora aldatzeagatik, zergadunak lurralde honetan aurkeztu badute lehen autolikidazioa modalitate mekanizatua erabilita, aurreko lehen lau zergaldietan beste zerga administrazioetan aurkeztutako aitortzen kopiak ere aurkeztu behar dituzte.

8. artikulua. *Hildako pertsonen PFEZaren itzulketak: itzulketak eskatzeko 109H eredua onartzea.*

Bat. Onarturik geratzen da 109H eredua, «Hildakoen PFEZa itzultzeko eskaera» izeneko, foru agindu honetan III. eranskin gisa jasotzen dena.

Bi. 109H eredua hildako pertsonen oinordekoek aurkeztu beharko dute, baldin eta kausatzaileen izenean itzultzerak ateratzen diren autolikidazioak aurkeztu eta sinatu badituzte zergaren foru arauaren 101.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Eredua itzulketak hori izapidetzeko erabiliko da. Ereduari hurrengo bosgarren apartatuan zehazten den dokumentazioa erantsi beharko zaio.

Hiru. Hildako pertsonaren autolikidazioa aurkeztu den unean zein ondorengo une batean aurkeztu ahal izango da 109H eredua, jarraian zehazten den eran:

— Autolikidazioa modalitate mekanizatua erabiliz aurkeztu bada, 109H eredua paperean aurkeztu ahal izango da autolikidazio horrekin batera, errenta mekanizatuko bulegoan bertan.

— Autolikidazioa internet bidez aurkezten bada, 109H eredua telematikoki aurkeztu ahal izango da autolikidazio horrekin batera, <https://zergabidea.gipuzkoa.eus> helbidean dagoen Zergabidea plataformaren bitartez.

— Nolanahi ere, eredua beti aurkeztu ahal izango da geroago, paperezko euskarrian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan.

Lau. 109H ereduaren paperezko euskarria Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialean eskuratu ahal izango da, <http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/hildakoenerrenta> helbidean sartuta. Eskaera inprimagarria izango da, eta eskatzaile guztiek sinatu beharko dute.

Bost. 109H ereduari hildako pertsonaren herentziari buruzko dokumentazioa erantsi beharko zaio, eta, behar den kasuetan, baita itzulketa egiteko kontu korrontea ere, jarraian zehazten denaren arabera:

a) Hildako pertsonaren herentziari buruzko dokumentazioa. Herentziari buruzko dokumentazioa bakar-bakarrik aurkeztu beharko da baldin eta itzulketa eskaera aurkezten den egunean oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga (670 eredua) oraindik ez bada Gipuzkoan aurkeztu.

Agiri hauek aurkeztu behar dira:

— Herentzia onartu edo banatzeko eskritura publikoa dagoenean, eskritura hori aurkeztuko da.

— Herentzia onartu edo banatzeko eskritura publikorik ez dagoenean, baina bai testamentua edo oinordetza ituna, bi hauek aurkeztuko dira: testamentua edo oinordetza ituna, eta azken nahien ziurtagiria.

— Herentzia onartu edo banatzeko eskritura publikorik edo testamentu edo oinordetza itunik ez dagoenean, agiri hauek aurkeztu beharko dira: familia liburua eta heriotza agiria, edo Erregistro Zibileko erregistro elektronikoen indibidualaren ziurtagiria, eta, gainera, azken nahien ziurtagiria.

b) Itzulketa egiteko kontu korrontea. Eskaeran adierazitako kontu korronteari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da, bakar-bakarrik, baldin eta kontu hori lehendik ez bazaio jakinarazi Foru Ogasunari (2022. urtean irekitako kontu korrontea).

Kasu horretan, eskatzaileen banku titulartasuna justifikatu beharko da, eta, horretarako, kontuen IBAN kodea eta haien titularrak identifikatu beharko dira agiri hauetako bat dela medio:

— Libretaren fotokopia.

— Banku helbideraketaren ordainagiria.

— Finantza entitatearen inprimakia edo ziurtagiria.

II. KAPITULUA

ONDAREAREN GAINEKO ZERGA

9. artikulua. Ondarearen gaineko zergaren 2021eko autolikidazioa aurkezteko 714 eredua onartzea.

Onarturik geratzen da «Ondarearen gaineko zergaren autolikidazioa» izena duen 714 eredua, 2021eko zergaldiari dagokiona. Foru agindu honetako IV. eranskinean ereduaren diseinu logikoak jasotzen dira, fitxategi elektroniko bidez aurkezten diren autolikidazioek bete beharrekoak.

10. artikulua. 714 eredua aurkezteko era.

Bat. «Ondarearen gaineko zergaren autolikidazioa» egiteko 714 eredua internet bidez baino ezin da aurkeztu, foru agindu honetako IV. eranskinean ageri diren diseinu logikoak bete behar dituzten fitxategi elektronikoak telematikoki bidalita.

Bi. 714 eredua aurkeztean ez da ezein dokumentaziorik erantsi behar.

Hiru. Autolikidazioak foru agindu honen III. kapituluari jasotako prozeduren arabera aurkeztuko dira.

11. artikulua. 714 eredua aurkeztera behartuak.

Bat. Zergadunak behartuta daude ondarearen gaineko zergaren 2021eko autolikidazioa aurkeztera autolikidazioaren emaitza ordaintzekoa denean edo, zirkunstantzia hori bete gabe ere, haien ondasun edo eskubideen balioa, zergaren arauen arabera zehaztua, 3 milioi euro baino handiagoa denean.

Bi. Ez-egoiliar batek Gipuzkoan izan badu bere azken egoitza, Gipuzkoan aitortzea aukera dezake, obligazio pertsonalagatik. Obligazio pertsonalaren autolikidazioa Gipuzkoan egoiliar izateari utzi dion lehen ekitaldian aurkeztuz egin beharko du aukera hori.

12. artikulua. Aurkezteko epea.

2022ko apirilaren 7tik ekainaren 30era bitartean, biak barne, aurkeztu daiteke autolikidazioa.

13. artikulua. Kuota ordaintzeko era eta epea.

Bat. Ondarearen gaineko zergaren autolikidaziotik ateratzen den kuota bankutik helbideratuta ordaindu da, 320/2017 Foru Aginduak 4. artikuluan jasotakoari jarraituz. Ondorio horietarako, onartuko da helbideratze kontuak entitate laguntzaileetan edo bestelako kreditu entitateetan irekita egotea.

Gainera, ordainketa egiteko, hurrengo apartatuetakoa berezitasunak hartuko dira kontuan.

Bi. Zerga zorra 2022ko uztailaren 1ean kargatuko da helbideratze kontuan.

Hiru. Autolikidazioa bidali ondoren, ordainketa-pasabidearen bitartez egin daiteke diru-sarrera edo, nahi bada, entitate laguntzaile batera joan daiteke eta diru-sarrera bertan egin dagokion ordainketa-gutuna aurkeztuta. Aukera egiteko eta kuota ordaintzeko, 320/2017 Foru Aginduaren 4. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoari jarraituko zaio.

Aurrekoa hala izanik ere, zein aukera egiten duen adierazteko eta entitate laguntzailean aurkeztu behar den ordainketa-gutuna eskuratzeko, zergadunak edo haren ordezkariak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren herritarren arretarako bulegoetara edo, bestela, departamentuak Donostiako Errotaburu pasealekuko 2 zenbakian duen kudeaketa bulegora jo dezake.

Nolanahi dela ere, diru-sarrera bigarren apartatuan aipatutako epea amaitu baino lehen egin beharko da.

Lau. Ordainketa ez bada egiten ezarrita dagoen epean, diru-sarrera bide exekutibotik bilduko da, hala xedatzen baitu 165. artikuluko 1.b) eta 3 apartatueta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak.

III. KAPITULUA

109 ETA 714 EREDUAK ELEKTRONIKOKI PRESTATU ETA AURKEZTEA

14. artikulua. 109 eta 714 ereduak elektronikoki prestatu eta aurkeztea. Prozedurak eta identifikazioa.

Bat. Internet bidezko modalitatean, 109 eta 714 ereduak fitxategi elektronikoen transferentzia telematikoz bidez aurkeztuko dira, Zergabidea plataformatik, 320/2017 Foru Aginduan eta kapitulu honetan ezarritakoari jarraituz. Plataforma horrek aurkeztu beharreko autolikidazioen zirriborroak prestatu eta gordetzeko aukera emango du halaber.

Zergabidea plataforma <https://zergabidea.gipuzkoa.eus> atarian dago eskuragarri. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik ere sartu ahal izango da bertara, <https://egoitza.gipuzkoa.eus> helbidearen bitartez, edo, bestela, Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik (<http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta>) helbidea erabiliz.

Dena den, 109 eta 714 ereduak prestatzeko, zilegi izango da beste programa batzuk erabiltzea, betiere baldin eta haiekin lortzen diren fitxategiek foru agindu honen I. eta IV. eranskinetan jasotzen diren formatu, ezaugarri eta zehaztapen berberak badituzte. Horrela prestatutako fitxategiak Zergabidea plataformaren bidez aurkeztuko dira, plataforma horretatik jaitsi eta gero.

Bi. 109 eta 714 ereduak elektronikoki aurkezteko, zergapekoek beren identitatea frogatu beharko dute bide hauetako bat erabiliz:

— Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoz balioztatua edo kualifikatua.

— Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoz ez-kualifikatua, Pasahitz Operatiboa.

— Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoz ez-kualifikatua, BAK.

Dena den, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek gutxienez zergaren autolikidazio bat aurkeztu badute Gipuzkoan azken lau ekitaldietan, internet bidez ere aurkeztu ahal izango dute zerga horren autolikidazioa eta beren identitatea kontraste datu baten bitartez frogatu. Datu hori ezagutuko dute bai zergadunak eta bai Zerga Administrazioak.

Era berean, Ogasun eta Finantza Departamentuak foru agindu honetako 2.Bat artikuluen A) letran jasotako autolikidazio proposamena bidali badie pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunei, zergadun horiek internet modalitatean aurkeztu ahal izango dute zerga horren autolikidazioa. Horretarako, beren identitatea frogatu beharko dute proposamenean jasotako kodea erabiliz.

Ordezkariek profesionalek, beren aldetik, sinadura elektronikoa erabili beharko dute, 109 eta 714 ereduak aurkezteko identifikazio sistema moduan, 320/2017 Foru Aginduak 1. artikuluen 6. apartatuan ezarritakoarekin bat.

Hiru. Banakako bidalketez gain, ordezkari profesionalek hainbat autolikidazioaren bidalketa kolektiboak egin ditzakete. Taldekako bidalketek zerga bereko autolikidazioak jaso behar dituzte.

Transmisio bakoitzean bidal daitekeen erregistro kopuru osoak ezingo du, batera hartuta, 10 megabyteko tamaina gainditu. Erregistro bakoitzak autolikidazio bakar bati buruzko informazioa jaso behar du, eta diseinu logikoetan definitu diren nahitaezko eremu guztiak beteta bidali behar dira.

15. artikulua. 109 ereduaren frogagiriaren aurkezpena.

Bat. Foru agindu honetako 7.Bat.b) artikuluko bigarren paragrafoan jasotako kasuetan izan ezik, 109 eredua bide elektronikoz bidali ondoren, zergadunak 7.Bi artikuluan jasotakoaren arabera dagozkion frogagiriak aurkeztu behar ditu Ogasun eta Finantza Departamentuan, betiere ezarrita dagoen epean.

Frogagiri horiek ez badira aurkezten, dagokion zehapena ezarriko da martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, xedatutakoarekin bat.

Bi. Zergadunek paperean aurkeztu ahal izango dute frogagiria, ondorengo apartatuko erregelei jarraituz, edo, bestela, frogagiriaren fitxategi elektronikoak bidali ahal izango dituzte modu telematikoan.

Ordezkari profesionalen kasuan, frogagiria aurkezteko, bide telematikoaz bidali beharko dituzte frogagiriaren fitxategi elektronikoak.

Dokumentazioa elektronikoki aurkeztu denean, Zerga Administrazioak jatorrizko agiri edo informazioa aurkezteko eskatu diezaioke edozein unetan zergadunari, kopien edukia alderatzeko.

Hiru. Paperean aurkezten diren frogagiriak, autolikidazioaren laburpenaren bi kopiekin batera joan behar dutenak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako edozein bulegotan aurkeztuko dira.

Bulegoko arduradunak zigilua jarri eta gero, zergadunak beretzat gordeko du autolikidazioaren laburpenaren interesdunaren alea, dokumentazioa aurkeztu izanaren frogagiri moduan erabiltzeko.

Autolikidazio bakoitzari dagokion dokumentazio guztia, hau da, Administrazioaren ale zigilatua eta bidezko frogagiriak, halakorik bada, DIN A4 tamainako gutun azal zuri batean sartuko dira. Bertan, autolikidazioari dagokion zergaduna identifikatuko da, eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) eta izen-abizenak jarriko dira.

Lehen xedapen gehigarria. Dokumentazioa kasu jakinetan aurkeztea.

7. eta 10.Bi artikuluetan xedatutakoaren arabera zergaren autolikidazioari erantsi behar ez zaion dokumentazioa edozein momentutan eska dezake Zerga Administrazioak.

Era berean, zergadunak aitorpena zuzentzea eskatzen badu martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 116.4 artikuluan dioenari jarraituta, edo errekurtsua aurkezten badu Zerga Administrazioak egindako behin-behineko likidazio baten aurka, bere asmoa oinarritzeko baliatzen duen frogagiria erantsi beharko du,

zergaren autolikidazioarekin batera aurkeztu ez duenean.

Bigarren xedapen gehigarria. Baimena emateko eredia.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa modalitate mekanizatuan egiten bada, autolikidazioa pertsona baimendu baten bitartez aurkeztu nahi duten zergadunek pertsona horren aldeko baimen idatzia erantsi behar diote autolikidazioa egiteko aurkezten duten dokumentazioari, eta baimen horrek bat etorri behar du foru agindu honen V. eranskinean jasotzen den ereduarekin. Behar bezala bete eta sinatu behar den agiri horren bitartez, zergadunak baimena emango dio hirugarrenari autolikidazioa bere izenean sinatu eta aurkezteko. Aipatutako agiriarekin batera, pertsona baimenduak, bere nortasun agiria erakusten duen momentuan, ordeztu duen zergadunaren nortasun agiriaren kopia ere aurkeztu beharko du.

Hirugarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalak eta harremanetarakoak lagatzeko baimena.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa (109 eredia) aurkezten dutenean, lehenago egin ez duten zergapekoek baimena eman dezakete beren nortasun eta harreman datu jakin batzuk Gipuzkoako Foru Aldundiko datu baseei lagatzeko, dituen zeregin publikoak bete ditzan. Orobat, baimen hori errebokatu dezakete, hura lehenago eman badute.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2022ko martxoaren 17a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(1631)

I. ERANSKINA

ERRENTA 2021

A.1. DISEINU LOGIKOAK

* Aitorpenaren fitxategiko erregistroak.

Aitorpen bakoitzeko, «00» kodeko lehen erregistro bat bete behar da aurkezlearen datuak adierazteko, aurrerago zehazten den diseinuaren arabera.

Erregistro bakoitzak identifikadore bat eraman behar du hasieran, eta beste bat amaieran.

Ondoren, aitorpenaren xehetasunak jasotzen dituzten erregistroak grabatuko dira.

Hauek izan daitezke erregistroak:

00. erregistroa: Aurkezlea. Nahitaezkoa. Bakarra.

01. erregistroa: Identifikazioa. Nahitaezkoa. Bakarra.

02. erregistroa: Ahaideak. Hautazkoa. Behar direnak.

03. erregistroa: 1. Likidazioa. Nahitaezkoa. Bakarra.

04. erregistroa: Gardentasun fiskala. Hautazkoa. Behar direnak.

05. erregistroa: Murrizpenak mutualitateei, pentsio planei, aurreikuspen planei, mendekotasun asegurei eta BGAEei ekarpenak egiteagatik. Hautazkoa. Behar direnak.
06. erregistroa: Kenkariak. Hautazkoa. Behar direnak.
07. erregistroa: Ohiko etxebizitzan inbertitzea. Hautazkoa. Behar direnak.
08. erregistroa: Etxebizitza kontua. Hautazkoa. Behar direnak.
10. erregistroa: Oraingo ekitaldiko jardueren kenkaria. Hautazkoa. Behar direnak.
11. erregistroa: 2. likidazioa. Nahitaezkoa. Bakarra.
12. erregistroa: Lanaren etekinak. Hautazkoa. Behar direnak.
13. erregistroa: Kapital higiezinaren etekinak, etxebizitza ez diren ondasunak errentan emateagatik lortutakoak. Hautazkoa. Behar direnak.
14. erregistroa: Kapital higiezinaren etekinak, etxebizitza errenta emateagatik lortutakoak. Hautazkoa. Behar direnak.
15. erregistroa: Kapital higigarriaren etekinak, salbuespenerako eskubidea duten dibidenduengatik lortutakoak. Hautazkoa. Behar direnak.
16. erregistroa: Kapital higigarriaren gainerako etekinak, zerga oinarri orokorrean sartzekoak. Hautazkoa. Behar direnak.
17. erregistroa: Gainerako kapital higigarria, aurrezpenaren zerga oinarrian sartzekoa. Hautazkoa. Behar direnak.
18. erregistroa: Ondare irabaziak eta galerak. Hautazkoa. Behar direnak.
21. erregistroa: Zuzeneko zenbatespenean dauden jarduera ekonomikoen etekinak. Hautazkoa. Behar direnak.
23. erregistroa: Aurreko ekitaldietan egin gabeko konpentsazio eta kenkariak. 7. eranskina. Hautazkoa. Behar direnak.
24. erregistroa: Kenkarirako eskubidearen galera. Hautazkoa. Behar direnak.
26. erregistroa: Ohiko etxebizitzaren kreditu fiskala. Hautazkoa. Behar direnak (nahitaezkoa 07, 08 edo 18 erregistroa bete denean, eta 18 erregistroaren kasuan, honako hauek ageri direnean: I gakoa, eta berrinbertsioagatik salbuetsitako irabazia).
27. erregistroa: Loteria eta apustu jakin batzuetako sarien gaineko karga berezia. Hautazkoa. Behar direnak.
28. erregistroa: Kenkariak-2. Hautazkoa. Behar direnak.
29. erregistroa: Kapital higiezinaren etekinak, erabilera turistikoko etxebizitzak errentan emateagatik lortutakoak. Hautazkoa. Behar direnak.
30. erregistroa: Txikizkako eraldaketa digitala, Sistema informatikoaren ezarpena eta Covid-ak kaltetutako jarduerak berrabiarazteko kenkariak. Hautazkoa. Behar direnak. Hautazko likidazioa aurkeztzen bada, honako erregistroak beteko dira:
01. erregistroa: Identifikazioa. Nahitaezkoa. Bakarra.

02. erregistroa: Ahaideak. Hautazkoa. Behar direnak.

03. erregistroa: 1. likidazioa. Nahitaezkoa. Bakarra.

11. erregistroa: 1. likidazioa. Nahitaezkoa. Bakarra.

12. erregistroa: Lanaren etekinak. Hautazkoa. Behar direnak.

* Ohar orokorrak.

Erregistro guztiak honako irizpide hauei jarraiki grabatuko dira:

Eremu alfabetikoak ezkerraldetik hasiko dira betetzen eta eskuinaldetik zuriunez beteko dira, karaktere numeriko edo berezirik idatzi gabe.

Eremu alfanumerikoak ezkerraldetik hasiko dira betetzen eta eskuinaldetik zuriunez beteko dira.

Karaktere alfabetikoak letra larriz formateatuko dira.

Eremu numerikoak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerraldetik zeroz beteko dira, enpaketatu gabe.

Kontrakoa esaten ez den bitartean, edukia eremu guztiek izango dute.

Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira eta alfanumerikoak zuriunez.

Aurkezpen ordenari dagokionez, kode guztiak behetik gorako hurrenkeran joango dira.

A.2. ERREGISTROEN AZALPENA

A.2.1. 00 erregistroaren diseinua. Aurkezlea.

Azalpena	Datu m.	Long.	Leh. pos.	Azk. pos.
Identifikadorearen hasiera <	AN	1	1	1
Eredua 109	N	3	2	4
Erregistroaren kodea 00	N	2	5	6
Erregistro zenbakia 01 Finkoa	N	2	7	8
Identifikadorearen amaiera >	AN	1	9	9
Erregistroaren gakoa				
Aitortzailearen IFZ	AN	9	10	18
Zergaldiaren hasiera (UUUUHHEE)	N	8	19	26
Zergaldiaren amaiera (UUUUHHEE)	N	8	27	34
Aurkezlearen datuak				
Aitorpena aurkezten duenaren IFZ	AN	9	35	43
Aitorpena aurkezten duenaren izena	AN	40	44	83
Fitxategiaren grabazio data	AN	8	84	91
Fitxategiaren programaren bertsioa	N	15	92	106
Barruko datuak	AN	300	107	406
Identifikadorearen amaiera	AN	10	307	416

* 00 Erregistroaren oharrak. Aurkezlearen datuak.

— Erregistroaren gakoa.

1. Aitortzailearen IFZ.

2. Zergaldiaren hasiera. Data formato honetan: urtea, hilabetea eta eguna. Aitortzen den zergaldiko lehen eguna da.

3. Zergaldiaren amaiera. Data formato honetan: urtea, hilabetea eta eguna. Aitortzen den zergaldiko azken eguna da.

Zergaldia ondoko irizpide hauei jarraiki definitzen da:

a) Ekitaldi oso bat aitortzen bada, zergaldia hauxe izango da:

Noiztik: 20210101.

Noiz arte: 20211231.

b) Aitortzen den zergaldia urte naturala baino laburragoa bada, zergaldiko lehen eta azken egunak grabatuko dira.

4. Eredua. Aitorpen eredu. Kasu honetan 109.

— Aurkezlearen datuak.

1. Aitorpena aurkezten duenaren IFZ: nahitaezkoa.

2. Aitorpena aurkezten duenaren izena: nahitaezkoa.

A.2.2. 01. erregistroaren diseinua. Identifikazio datuak.

<i>Azalpena</i>	<i>Datu m.</i>	<i>Long.</i>	<i>Leh. pos.</i>	<i>Azk. pos.</i>
Identifikadorearen hasiera <	AN	1	1	1
Eredua 109	N	3	2	4
Erregistroaren kodea 01	N	2	5	6
Erregistro zenbakia 01 Finkoa	N	2	7	8
Identifikadorearen amaiera >	AN	1	9	9
Erregistroaren gakoa				
Aitortzailearen IFZ	AN	9	10	18
Zergaldiaren hasiera (UUUUHHEE)	N	8	19	26
Zergaldiaren amaiera (UUUUHHEE)	N	8	27	34
Datu pertsonalak eta familiarak				
Aitortzailearen deiturak eta izena	AN	40	35	74
Aitortzailearen egoera zibila (S/C/V/J/P)	AN	1	75	75
Erregimen ekonomikoa (G/S/O)	AN	1	76	76
Aitortzailearen jaioteguna (UUUUHHEE)	N	8	77	84
Aitortzailearen heriotza eguna (UUUUHHEE)	N	8	85	92
Aitortzailearen desgaitasun marka	AN	1	93	93
Aitortzailearen desgaitasun portzentajea	N	5	94	98
Aitortzailearen pentsiodun marka	AN	1	99	99
Aitortzailearen puntuak hirugarren pertsonen laguntzagatik	N	5	100	104
Aitortzailearen mendekotasun maila	AN	1	105	105

<i>Azalpena</i>	<i>Datu m.</i>	<i>Long.</i>	<i>Leh. pos.</i>	<i>Azk. pos.</i>
Aitortzailearen sexua	AN	1	106	106
Aitortzaileak beste bati uzten dio desgaitasunaren edo mendekotasunaren kenkaria ' ' EZ uztea inori 'C' ezkontideari uztea 'O' beste pertsona batzuei uztea 'A' ezkontideari eta beste pertsona batzuei uztea	AN	1	107	107
Aitortzailearen desgaitasun/mendekotasun kenkaria aplikatzen dutenen kopurua	N	2	108	109
Aitortzailearen identifikazio datuak eta harremanetarakoak administrazioari lagatzea	AN	1	110	110
Aitortzailearen identifikazio datuak eta harremanetarakoak administrazioari lagatzeko emandako baimena bertan behar uztea	AN	1	111	111
Aitortzailearen hizkuntza (C/E)	AN	1	112	112
Aitortzailearen zerga esleipena eliza katolikorako	AN	1	113	113
Aitortzailearen zerga esleipena interes sozialeko elkarreterako	AN	1	114	114
Aitortzailearen helbidea. Bide publikoaren siglak	AN	2	115	116
Aitortzailearen helbidea. Bide publikoaren izena	AN	30	117	146
Aitortzailearen helbidea. Finkaren izena	AN	30	147	176
Aitortzailearen helbidea. Kalearen kodea	N	4	177	180
Aitortzailearen helbidea. Atariaren zenbakia	N	3	181	183
Aitortzailearen helbidea. Atariaren letra	AN	2	184	185
Aitortzailearen helbidea. Eskailera	AN	1	186	186
Aitortzailearen helbidea. Oina	AN	2	187	188
Aitortzailearen helbidea. Eskua	AN	3	189	191
Aitortzailearen helbidea. Udalerraren kodea	N	3	192	194
Aitortzailearen helbidea. Udalerraren izena	AN	25	195	219
Aitortzailearen helbidea. Posta kodea	N	5	220	224
Aitortzailearen telefono finkoa	N	9	225	233
Aitortzailearen telefono mugikorra	N	9	234	242
Aitortzailearen helbide elektronikoa	AN	40	243	282
Aitortzailearen erretiro urtea	N	4	283	286
Ezkontidearen IFZ	AN	9	287	295
Ezkontidearen deiturak eta izena	AN	40	296	335
Aitorpenaren datuak				
Tributazio mota (S//C)	AN	1	336	336
Errentan hartu gabeko etxebizitza	AN	1	337	337
Errentan hartutako etxebizitza	AN	1	338	338
Errentan hartutako etxebizitzak (2ko matrizea)				
Errentatzailearen IFZ	AN	9	339	347
Errentatzailearen deiturak eta izena	AN	40	348	387
Errentaren zenbatekoa	N	11	388	398
Idem posizioak (399tik 458ra)				
IBAN kodea	AN	34	459	492
Familia ugariaren marka	AN	1	493	493
Frogagirien aurkezpena (S / N)	AN	1	494	494
Hautazko aitorpenaren marka	N	9	495	495

<i>Azalpena</i>	<i>Datu m.</i>	<i>Long.</i>	<i>Leh. pos.</i>	<i>Azk. pos.</i>
Langile lekualdatuen araubide berezia aukeratu duen aitortzailea (FAren 56 bis art.)	AN	1	496	496
Mugikortasun murriztua	AN	2	497	498
Aitortzailearen helbidea. Erreferentzia katastrala	AN	20	499	518
Aitortzailearen helbidea. Zenbaki finkoa erref katastr	AN	12	519	530
Identifikadorearen amaiera	AN	10	531	540

* 01. erregistroaren oharrak. Identifikazio datuak.

Erregistro honek aitortzailearen eta ezkontidearen identifikazio datuak jasotzen ditu.

— Egoera Zibila eremuan honako balio hauetako bat adieraziko da:

S = Ezkongabea.

C = Ezkondua.

V = Alarguna.

J = Dibortziatua o epai bidez banandua.

P = Izatezko bikoteak.

— Aitortzailea ezkondua bada, ezkontidearen identifikazio datuak eta jaioteguna jartzea derrigorrezkoa izango da, eta senar-emaztearen erregimen ekonomikoa ere adierazi beharko da. Azken hau ondoko hauetako bat izaten ahalko da:

G = Irabazpidezko ondasunak.

S = Ondasun banaketa.

O = Bestelakoak.

— Tributazio motaren gakoa:

Derrigorrez bete behar da, balio hauetako bat erabiliz:

S = Subjektu pasiboa familia unitatean sartuta ez dagoenean.

I = Familia unitateko kide bakoitzak banaka tribututzen duenean.

C = Familia unitateak batera tribututzen duenean.

— Zergaren zati bat Eliza Katolikoarentzat.

Balio hauetako bat eraman dezake:

X edo zuriunea.

«X» eramaten badu, «Aitortzailearen zerga esleipena Interes sozialeko elkarreentzako» aukerak X marka ere eraman dezake.

— Zergaren zati bat interes sozialeko elkarreentzako.

Balio hauetako bat eraman dezake:

X edo zuriunea.

«X» eramaten badu, «Aitortzailearen zerga esleipena eliza katolikorako» aukerak X marka ere eraman dezake.

— Aitortzailearen hizkuntza. Gakoa.

Balio hauetako bat jarriko da:

E = Euskara.

C = Gaztelera.

— Aitortzailearen pentsiodun marka.

Pentsioduna denean «P» jarriko da. Bestela, ez da beteko.

Hurrengo eremuok:

- a) Aitortzailearen minusbaliatu marka.
- b) Aitortzailearen desgaitasun portzentajea.
- c) Aitortzailearen puntuak hirugarren pertsonen laguntzagatik.
- d) Aitortzailearen mendekotasun maila.
- e) Errentan hartu gabeko etxebizitza.
- f) Errentan hartutako etxebizitza.

«a-b» eremuak ez badira bete behar, zuriunea eta zeroak jarriko dira. Aldiz, betetzea zilegi bada, nahitaez beteko dira bi eremuak, X marka eta portzentajea ipinita.

«c» eremuetan 3. pertsonen laguntza beharra zehazteko lortu diren puntuak jarriko dira, betiere desgaitasun maila % 75etik gorakoa bada. Datu hori ematea ez badagokio, zeroz beteko da.

«d» eremuak zergadunaren mendekotasun maila jarriz beteko dira mendekotasun egoeran. Balio hauetako bat jar daiteke:

M, mendekotasun txikia.

S, mendekotasun ertaina.

G, mendekotasun handia.

Mendekotasunik ez badago, zuriunea utziko da.

«e» eta «f» eremuen kasuan, batak bestea baztertzen du.

IBAN kodea nahitaezkoa izango da beti.

IBAN kode osoa idatzi behar da.

— Familia ugariaren marka.

Balio hauetako bat eraman dezake:

X = familia ugaria bada.

Zuriunea = gainerako kasuetan.

— Aitortzailearen sexua gakoa:

Derrigorrez bete behar da, balio hauetako bat jarritz:

V = Gizonezkoa.

M = Emakumezkoa.

— Frogagiriaren aurkezpena:

Derrigorrez bete behar da, balio hauetako bat jarrita:

S = Frogagiriak aurkeztuko ditu.

N = Ez du frogagirik aurkeztuko.

— Aitortzailearen telefono finkoa / Aitortzailearen telefono mugikorra / Aitortzailearen helbide elektronikoa.

Nahitaez, hiru eremuetako bat bete behar da.

— Aitortzaileak beste bati uzten dio desgaitasunaren/mendekotasunaren kenkaria.

Balio hauetako bat eraman dezake:

Zuriunea: Ez dio inori uzten.

«C»: ezkontideari uzten dio kenkaria.

«O»: beste pertsona batzuei uzten die kenkaria.

«A»: ezkontideari eta beste pertsona batzuei uzten die kenkaria.

— Aitortzailearen desgaitasun/mendekotasun kenkaria aplikatzen dutenen kopurua.

Datu hau nahitaezkoa da aitortzailearen kenkaria ezkontideari eta beste pertsona batzuei uzten zaienean, kenkaria zenbat pertsonaren artean banatu behar den adierazteko.

Aitortzailearen identifikazio datuak eta harremanetarakoak Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuei lagatzea.

Balio hauetako bat eraman dezake:

X edo zuriunea.

— Aitortzailearen identifikazio datuak eta harremanetarakoak Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuei lagatzeko emandako baimena bertan behar uztea.

Balio hauetako bat eraman dezake:

X edo zuriunea.

— Hautazko aitortpenaren marka.

Balio hauetako bat eraman dezake:

X edo zuriunea.

— «Langile lekualdatuen araubide berezia aukeratu duen aitortzailea (FAren 56 bis art.)» eremuak balio hauetako bat eraman dezake:

X edo zuriunea.

A.2.3. 02. erregistroaren kodea. Ahaideak.

Azalpena	Datu m.	Long.	Leh. pos.	Azk. pos.
Identifikadorearen hasiera <	AN	1	1	1
Eredua 109	N	3	2	4
Erregistroaren kodea 02	N	2	5	6
Erregistro zenbakia 01 Errepikakorra (01-99)	N	2	7	8
Identifikadorearen amaiera >	AN	1	9	9
Erregistroaren gakoa				
Aitortzailearen IFZ	AN	9	10	18
Zergaldiaren hasiera (UUUUHHEE)	N	8	19	26
Zergaldiaren amana (UUUUHHEE)	N	8	27	34
Ahaidearen datuak				
Ahaidetasuna (H/D/A/I/L/C)	AN	1	35	35
Ahaidearen IFZ	AN	9	36	44
Ahaidearen deiturak eta izena	AN	40	45	84
Ahaidearen jaioteguna (UUUUHHEE)	N	8	85	92
Ahaidearen heriotza eguna (UUUUHHEE)	N	8	93	100
Ekitaldiko errentak	N	11	101	111
Ahaidearen gakoa bakarrik ahaidetasuna H/D/A denean	AN	1	112	112
Aurreko eta ondorengo ahaideen kenkaria egozteko gakoa, ahaidetasuna H/D/A denean	AN	1	113	113
Ahaidearen desgaitasun marka	AN	1	114	114
Ahaidearen desgaitasun portzentajea	AN	5	115	119
Ahaidearen puntuak hirugarren pertsonen laguntzagatik	N	5	120	124
Ahaidearen mendekotasun maila	AN	1	125	125
Ahaidearen desgaitasun/mendetasunaren kenkaria egozteko, ahaidetasuna H/D/A/L denean	AN	1	126	126
Ahaideen desgaitasun/mendetasunaren kenkaria aplikatzen duten pertsonen kopurua, ahaidetasuna H/D/A/I/L denean	N	2	127	128
Ezkontidearen pentsiodun marka	AN	1	129	129
Ezkontidearen sexua	AN	1	130	130
Ezkontideak beste bati uzten dio desgaitasunaren edo mendekotasunaren kenkaria ' ' EZ uztea inori 'D' aitortzaileari uztea 'O' beste pertsona batzuei uztea 'A' aitortzaileari eta beste pertsona batzuei uztea	AN	1	131	131
Ezkontidearen desgaitasun/mendekotasun kenkaria aplikatzen dutenen kopurua	N	2	132	133
Ezkontidearen identifikazio datuak eta harremanetarakoak administrazioari lagatzea	AN	1	134	134

<i>Azalpena</i>	<i>Datu m.</i>	<i>Long.</i>	<i>Leh. pos.</i>	<i>Azk. pos.</i>
Ezkontidearen identifikazio datuak eta harremanetarakoak administrazioari lagatzeko emandako baimena bertan behar uztea	AN	1	135	135
Ezkontidearen hizkuntza (C/E)	AN	1	136	136
Ezkontidearen zerga esleipena eliza katolikorako	AN	1	137	137
Ezkontidearen zerga esleipena interes sozialeko erakundeetarako	AN	1	138	138
Ezkontidearen helbidea. Bide publikoaren siglak	AN	2	139	140
Ezkontidearen helbidea. Bide publikoaren izena	AN	30	141	170
Ezkontidearen helbidea. Finkaren izena	AN	30	171	200
Ezkontidearen helbidea. Kalearen kodea	N	4	201	204
Ezkontidearen helbidea. Atariaren zenbakia	N	3	205	207
Ezkontidearen helbidea. Atariaren letra	AN	2	208	209
Ezkontidearen helbidea. Eskailera	AN	1	210	210
Ezkontidearen helbidea. Oina	AN	2	211	212
Ezkontidearen helbidea. Eskua	AN	3	213	215
Ezkontidearen helbidea. Udalerraren kodea	N	3	216	218
Ezkontidearen helbidea. Udalerraren izena	AN	25	219	243
Ezkontidearen helbidea. Posta kodea	N	5	244	248
Ezkontidearen telefono finkoa	N	9	249	257
Ezkontidearen telefono mugikorra	N	9	258	266
Ezkontidearen helbide elektronikoa	AN	40	267	306
Ezkontidearen erretiro urtea	N	4	307	310
Langile lekualdatuen araubide berezia aukeratu duen ezkontidea (FAren 56 bis art.)	AN	1	311	311
Mugikortasun murriztua	AN	2	312	313
Ezkontidearen helbidea. Erreferentzia katastrala	AN	20	314	333
Ezkontidearen helbidea. Zenbaki finkoa erref katastr	AN	12	334	345
Identifikadorearen amaiera	AN	10	346	355

* 02. erregistroaren oharrak. Ahaideen datuak.

Erregistro honek Familia Unitateko kide guztien identifikazio datuak eta aitortzailearekin bizi diren beste pertsonenak jasotzen ditu.

Datu hauek aitorten inprimakiaren lehen orrian agertzen dira.

— Ahaidetasuna. Hauetako bat izango da:

C = Ezkontidea edo izatezko bikote-laguna

H = Adingabeko seme-alabak.

D = Ondorengo ahaideak.

A = Aurreko ahaideak.

I = 65 urtetik gorako pertsona desgaitu edo mendekoak (Senideak ez direnak)

L = Desgaituak edo mendekoak diren beste senide batzuk.

— Ahaidearen gakoa, ahaidetasuna H denean:

Balio hauetako bat jarri ahal izango da:

C = Gurasoetako batek adingabekoarekin batera aurkezten duenean aitorpena eta seme-alaben kenkaria zati berdinetan hainbanatzen denean bi gurasoen artean ezkontza baliogabetzeagatik, senar-emazteak dibortziatu edo banantzeagatik eta izatezko bikoteak izateagatik.

H = Adingabeko seme-alabak ezkontideetako batenak bakarrik direnean (aurreko harremanen ondorioz) eta seme-alaben kenkarirako eskubidea ematen dutenean.

P = Guraso-aginte luzatu edo birgaitupean dauden adin nagusiko seme-alabak direnean.

— Ahaidearen gakoa, ahaidetasuna D denean:

Balio hauetako bat jarri ahal izango da:

C = Gurasoetako batek adingabekoarekin batera aurkezten duenean aitorpena eta seme-alaben kenkaria zati berdinetan hainbanatzen denean bi gurasoen artean ezkontza baliogabetzeagatik, senar-emazteak dibortziatu edo banantzeagatik eta izatezko bikoteak izateagatik.

H = Adingabeko seme-alabak ezkontideetako batenak bakarrik direnean (aurreko harremanen ondorioz) eta seme-alaben kenkarirako eskubidea ematen dutenean.

T = Pertsona tutelatua edo etxean hartua denean.

— Ahaidearen gakoa, ahaidetasuna A denean:

Aurreko ahaideen kenkaria hainbanatzeko kontuan hartuko diren maila bereko zergadun kopurua jarriko da.

— «Aurreko eta ondorengo ahaideen kenkaria egozteko gakoa, ahaidetasuna H/D/A denean» eremuak balio hauetako bat eraman dezake:

D = Kenkaria aitortzaileak aplikatzen du.

C = Kenkaria ezkontideak aplikatzen du.

Zuriunea = Kenkaria ezin da aplikatu edo biek aplikatzen dute (aitortzaileak eta ezkontideak).

— Desgaitu marka eta desgaitasun portzentajea eremuak.

Bidezkoak ez direnean zuriune batekin eta zeroak jarritz beteko dira. Bestela, X bat eta dagokien portzentajea adieraziko da.

«Puntuak 3. pertsonen laguntzagatik» eremua betetzeko, 3. pertsonengandik laguntza jaso beharra zehazteko lortu diren puntuak jarriko dira, betiere desgaitasun maila % 75ekoa baino handiagoa bada. Datu hori ematea ez badagokio, zeroz beteko da.

«Mendekotasun maila» eremuan ahaidearen mendekotasuna jarriko da mendekotasun egoeran dagoenean. Balio hauetako bat eraman dezake:

M, mendekotasun txikia.

S, mendekotasun ertaina.

G, mendekotasun handia.

Mendekotasunik ez badago, zuriune bat utziko da.

«Ahaidearen desgaitasun/mendetasunaren kenkaria egozte, ahaidetasuna H/D/A/L denean» eremuak balio hauetako bat eraman dezake:

D = Kenkaria aitortzaileak aplikatzen du.

C = Kenkaria ezkontideak aplikatzen du.

O = Kenkaria beste pertsona batzuei aplikatzen die (ez da aplikatzen kenkaria aitorpen honetan).

Zuriunea = Kenkaria ezin denean aplikatu eta biek aplikatzen dutenean (aitortzaileak eta ezkontideak).

— Ahaideen desgaitasun/mendetasunaren kenkaria aplikatzen duten pertsonen kopurua, ahaidetasuna H/D/A/I/L denean.

Ahaidea pertsona batekin baino gehiagorekin bizi denean, adierazi behar da zenbat pertsonaren artean banatuko den kenkaria.

— Ezkontidearen zerga esleipena eliza katolikorako.

Balio hauetako bat eraman dezake:

X edo zuriunea.

«X» eramaten badu, «Aitortzailearen zerga esleipena Interes sozialeko elkarteetarako» aukerak X marka ere eraman dezake.

— Ezkontidearen zerga esleipena interes sozialeko elkarteetarako.

Balio hauetako bat eraman dezake:

X edo zuriunea.

«X» eramaten badu, «Eliza katolikorako esleipena» aukerak X marka ere eraman dezake.

— Ezkontidearen hizkuntza. Gakoa.

Balio hauetako bat jarriko da:

E = Euskara.

C = Gaztelera.

— Ezkontidearen pentsiodun marka.

Pentsioduna denean «P» jarriko da. Bestela, ez da betekoa.

— Ezkontidearen sexua gakoa:

Derrigorrez bete behar da, balio hauetako bat jarritz:

V = Gizonezkoa.

M = Emakumezkoa.

— Ezkontidearen telefono finkoa / Ezkontidearen telefono mugikorra / Ezkontidearen helbide elektronikoa.

Nahitaez, hiru eremuetako bat bete behar da.

— Ezkontideak beste bati uzten dio desgaitasunaren/mendekotasunaren kenkaria.

Balio hauetako bat eraman dezake:

Zuriunea: EZ dio inori uzten.

«D»: aitortzaileari uzten dio kenkaria.

«O»: beste pertsona batzuei uzten die kenkaria.

«A»: aitortzaileari eta beste pertsona batzuei uzten die kenkaria.

— Ezkontidearen desgaitasun/mendetasun kenkaria aplikatzen dutenen kopurua.

Datu hau nahitaezkoa da ezkontidearen kenkaria aitortzaileari eta beste pertsona batzuei uzten zaienean, kenkaria zenbat pertsonaren artean banatu behar den adierazteko.

— Ezkontidearen identifikazio datuak eta harremanetarakoak Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuei lagatzea.

Balio hauetako bat eraman dezake:

X edo zuriunea.

— Ezkontidearen identifikazio datuak eta harremanetarakoak Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuei lagatzeko emandako baimena bertan behar uztea.

Balio hauetako bat eraman dezake:

X edo zuriunea.

— «Langile lekualdatuen araubide berezia aukeratu duen ezkontidea (FAren 56 bis art.)» eremuak balio hauetako bat eraman dezake:

X edo zuriunea.

A.2.4. 03. erregistroaren diseinua. 1. likidazioa.

Azalpena	Datu m.	Long.	Leh. pos.	Azk. pos.
Identifikadorearen hasiera <	AN	1	1	1
Eredua 109	N	3	2	4
Erregistroaren kodea 03	N	2	5	6
Erregistro zenbakia 01 Finkoa	N	2	7	8
Identifikadorearen amaiera >	AN	1	9	9
Erregistroaren gakoa				
Aitortzailearen IFZ	AN	9	10	18
Zergaldiaren hasiera (UUUUHHEE)	N	8	19	26
Zergaldiaren amaiera (UUUUHHEE)	N	8	27	34
I. Likidazio orria				
Zerga oinarri orokorra				
Lanaren etekinak				

<i>Azalpena</i>	<i>Datu m.</i>	<i>Long.</i>	<i>Leh. pos.</i>	<i>Azk. pos.</i>
Aurretiko etekina	N	11	35	45
Hobaria	N	11	46	56
Lanaren etekin garbia	N	11	57	67
Kapital higiezinaren etekin garbia	N	11	68	78
Kapital higigarriaren etekin garbia	N	11	79	89
Jardueraren etekin garbia	N	11	90	100
Jardueraren etekin negatiboa konpentsatzea	N	11	101	111
IETen eta ABEEen errenta egozpenak	N	11	112	122
Nazioarteko gardentasun fiskaleko etekinak	N	11	123	133
Etekinak eta errenten egozpenak	N	11	134	144
Irabazi eta galera orokorren saldo negatiboaren konpentsazioa, %10eko muga aplikatuta	N	11	145	155
Irabaziak	N	11	156	166
Galerak	N	11	167	177
Kompentsatzeko dagoen saldo negatiboa	N	11	178	188
Aur.ko ekt.etako galera orokorren saldo negatiboaren konpentsazioa	N	11	189	199
Ondare irabazi eta galeren saldo positiboa konpentsazioak aplikatu ondoren	N	11	200	210
Zerga oinarri orokorra	N	11	211	221
Murrizpena, guztira, pentsio konpentsagarriengatik eta mutualitateei, pentsio planei, aurreikuspen planei, mendeotasun aseguruiei eta BGAEei egindako ekarpenengatik	N	11	222	232
Aurreko ekitaldietan egin gabeko murrizpenak	N	11	233	243
Murrizpena batera tributatzeagatik	N	11	244	254
Au.ko ekit.etako oinarri likidagarri negatiboaren konpentsazioa	N	11	255	265
Justifikatu gabeko ondare irabaziak	N	11	266	276
Zergapetzen den oinarri likidagarri orokorra	N	11	277	287
Errenta salbuetsiak, karga tasa zehazteko izan ezik	N	11	288	298
Karga eskala aplikatzeko oinarri orokorra	N	11	299	309
Oinarri orokorra, Gehienez	N	11	310	320
Kuota orokorra, Gehienez	N	11	321	331
Oinarri orokorra, Gainerakoa	N	11	332	342
Oinarri orokorraren gainerakoari aplikatu beharreko tasa	N	5	343	347
Kuota orokorra, Gainerakoa	N	11	348	358
Batez besteko karga tasa orokorra	N	5	359	363
Oin. orokorraren aurretiazko kuota osoa	N	11	364	374
Kuota orokorraren gutxipena	N	11	375	385
Kuota osoa, orokorra	N	11	386	396
Aurrezpenaren zerga oinarria				
Kapital higiezinaren etekin garbia	N	11	397	407
Kapital higigarriaren aurretiko etekin garbia	N	11	408	418
Salbuetsitako dibidendu eta mozkin-partaidetzak	N	11	419	429
Kapital higigarriaren etekin garbia	N	11	430	440
Kapitalaren etekin garbien saldo positiboa	N	11	441	451
Kapitalaren etekin garbien saldo negatiboa	N	11	452	462
Kapitalaren etekinek aur.ko ekit.an izandako saldo negatiboaren konpentsazioa	N	11	463	473

<i>Azalpena</i>	<i>Datu m.</i>	<i>Long.</i>	<i>Leh. pos.</i>	<i>Azk. pos.</i>
Ondare irabazi eta galerak (ondare elementuen eskualdaketatik datozenak)				
Irabaziak	N	11	474	484
Galerak	N	11	485	495
Ondare irabazi eta galeren saldo positiboa konpentsazioak aplikatu gabe	N	11	496	506
Ondare irabazi eta galeren saldo negatiboa konpentsazioak aplikatu gabe	N	11	507	517
Aur. ekit.ko aurrezp. ondare galer. saldo negatib.ren konpentsazioa	N	11	518	528
Pents. konp..en eta urteko mant.aren murrizpenaren gerakina	N	11	529	539
Aurrezpenaren oinarri likidagarri zergapetua	N	11	540	550
Errenta salbuetsiak, karga tasa zehazteko izan ezik	N	11	551	561
Karga eskala aplikatzeko oinarria	N	11	562	572
Aurrezpenaren oinarria, Gehienez	N	11	573	583
Aurrezpenaren kuota, Gehienez	N	11	584	594
Aurrezpenaren oinarria, Gainerakoa	N	11	595	605
Aurrezpenaren oinarriaren gainerakoari aplikatu beharreko tasa	N	5	606	610
Aurrezpenaren kuota, Gainerakoa	N	11	611	621
Aurrezpenaren batez besteko karga tasa	N	5	622	626
Aurrezpenaren kuota osoa	N	11	627	637
Kuota osoa errentako 3/2014 Fako 20. x.g.	N	11	638	648
Jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazien doikuntza	N	11	649	659
Kuota osoa, guztira	N	11	660	670
Hautazko aitortpena				
Etekin osoen batura	N	11	671	681
Atxikipen portzentajea	N	2	682	683
Identifikadorearen amaiera	AN	10	684	693

* 03. erregistroaren oharra. 1. likidazioari buruzko datuak.

Erregistro honetan zerga oinarri orokorraren, aurrezpenaren zerga oinarriaren eta kuota osoen kopuruei buruzko informazioa jasotzen da.

— Hautazko aitortpena.

Hautazko aitortpen bat aurkezten bada, eremu hauek bakarrik bete beharko dira:

Etekin osoen batura.

Atxikipen portzentajea.

A.2.5. 04. erregistroaren diseinua. Gardentasun fiskala.

<i>Azalpena</i>	<i>Datu m.</i>	<i>Long.</i>	<i>Leh. pos.</i>	<i>Azk. pos.</i>
Identifikadorearen hasiera <	AN	1	1	1
Eredua 109	N	3	2	4
Erregistroaren kodea 04	N	2	5	6
Erregistro zenbakia 01 Errepikakorra (01-99)	N	2	7	8
Identifikadorearen amaiera >	AN	1	9	9
Erregistroaren gakoa				

Aitortzailearen IFZ	AN	9	10	18
Zergaldiaren hasiera (UUUUHHEE)	N	8	19	26
Zergaldiaren amaiera (UUUUHHEE)	N	8	27	34
Gardentasun fiskala				
Jasotzailearen gakoa (D/C/H1/H2...)	AN	2	35	36
Mota (P/I)	N	1	37	37
Entitatearen IFK	AN	9	38	46
Kenkariak	N	11	47	57
Konturako ordainketak	N	11	58	68
Zerga oinarria	N	11	69	79
Nazioarteko gardentasun fiskalean dagoen entitatea	AN	25	80	104
Nazioarteko gardentasun fiskalerako herrialdea	AN	10	105	114
Identifikadorearen amaiera	AN	10	115	124

* 04. erregistroaren oharra. gardentasun fiskalari buruzko datuak.

— Sozietate mota eremuak balio hauetako bat izango du:

«P» = IETak eta ABEEak.

«I» = Nazioartekoa.

— Jasotzailearen gakoa eremuan balio hauetako bat jarriko da:

D = Aitortzailea.

C = Ezkontidea.

H1 = Adingabeko lehen seme-alaba.

H2 = Adingabeko bigarren seme-alaba.

Eta horrela hurrengoetan ere.

P motakoa denean, entitatearen IFK jarriko da.

I motaren kasuan, entitatearen izena eta herrialdea adieraziko dira.

A.2.6. 05. erregistroaren diseinua. Murrizpenak mutualitateei, pentsio planei, gizarte aurreikuspeneko planei, mendekotasun aseguruiei eta BGAEei ekarpenak egiteagatik.

Azalpena	Datu m.	Long.	Leh. pos.	Azk. pos.
Identifikadorearen hasiera <	AN	1	1	1
Eredua 109	N	3	2	4
Erregistroaren kodea 05	N	2	5	6
Erregistro zenbakia 01 Errepikakorra (01-99)	N	2	7	8
Identifikadorearen amaiera >	AN	1	9	9
Erregistroaren gakoa				
Aitortzailearen IFZ	AN	9	10	18

<i>Azalpena</i>	<i>Datu m.</i>	<i>Long.</i>	<i>Leh. pos.</i>	<i>Azk. pos.</i>
Zergaldiaren hasiera (UUUUHHEE)	N	8	19	26
Zergaldiaren amaiera (UUUUHHEE)	N	8	27	34
Zerga oinarriaren murrizpenak				
Subjektu pasiboa (D/C/H1/H2...)	AN	2	35	36
Murrizpen mota	AN	4	37	40
Entitatearen IFK / Ahaidearen IFZ, gakoa F bada	AN	9	41	49
Entitatearen izena /Ahaidearen izen-abizenak, gakoa F bada	AN	40	50	89
Ekarpena	N	11	90	100
Kontribuzioa	N	11	101	111
Murrizpena	N	11	112	122
Amaierako identifikadorea	AN	10	123	132

* 05. erregistroaren oharrak. murrizpenak mutualitateei, pentsio planei, gizarte aurreikuspeneko planei, mendekotasun aseguruiei eta bgaei ekarpenak egiteagatik.

Subjektu pasiboa eremuan balio hauetako bat jarriko da:

D = Aitortzailea.

C = Ezkontidea.

H1 = Adingabeko lehen seme-alaba.

H2 = Adingabeko bigarren seme-alaba.

Eta horrela hurrengoetan ere.

— Murrizpen mota eremuan balio hauetako bat jarriko da:

ALIM: Murrizpena pentsio konpentsagarriengatik eta urteko mantenua ordaintzeagatik.

REDU: Murrizpena BGAEi egindako ekarpenengatik eta pentsio planei, gizarte aurreikuspeneko planei, mendekotasun aseguruiei eta mutualitatei.

AFAV: Murrizpena ezkontidearen aldeko ekarpenak egiteagatik.

MINU: Murrizpena aitortzaileak desgaituak izateagatik (% 33ko edo hortik gorako portzentajea).

FAMI: Senide ezindu baten aldeko murrizpena.

DEPO: Kirolari profesionalen mutualitateengatik aplikatutako murrizpena.

A.2.7. 06. erregistroaren diseinua. Kenkariak.

<i>Azalpena</i>	<i>Datu m.</i>	<i>Long.</i>	<i>Leh. pos.</i>	<i>Azk. pos.</i>
Identifikadorearen hasiera <	AN	1	1	1
Eredua 109	N	3	2	4
Erregistroaren kodea 06	N	2	5	6
Erregistro zenbakia 01 Errepikakorra (01-99)	N	2	7	8

Identifikadorearen amaiera >	AN	1	9	9
Erregistroaren gakoa				
Aitortzailearen IFZ	AN	9	10	18
Zergaldiaren hasiera (UUUUHHEE)	N	8	19	26
Zergaldiaren amaiera (UUUUHHEE)	N	8	27	34
Titularra (D/C/H1/H2...)	AN	2	35	36
Kenkariak				
Kenkari mota	AN	3	37	39
Seme-alaba kopurua	N	1	40	40
Zenbatekoa	N	11	41	51
Kenkaria	N	11	52	62
Enpresaren IFZ edo IFK	AN	9	63	71
Enpresaren izena	AN	25	72	96
Portzentaje kengarria	N	5	97	101
Atzerrian lortutako errentak	N	11	102	112
Batez besteko tasa orokorra edo aurrezpenarena	N	5	113	117
Aurreko ekitaldietan aplikatutako kenkariaren zenbatekoa	AN	11	118	128
Identifikadorearen amaiera	AN	10	129	138

* 06. erregistroaren oharak. Kenkariak.

Erregistro honetan hainbat kenkariri buruzko informazioa jasotzen da.

— Subjektu pasiboa eremuan balio hauetako bat jarriko da:

D = Aitortzailea.

C = Ezkontidea.

H1 = Adingabeko lehen seme-alaba.

H2 = Adingabeko bigarren seme-alaba.

Eta horrela hurrengoetan ere.

— Kenkari mota eremuan balio hauetako bat jarriko da:

ANU: Kenkaria urteko mantenua ordaintzeagatik.

DO1: Kenkaria mezenasgoaren aldeko dohaintzengatik.

DO2: Kenkaria zuzeneko zenbatespenean jarduera ekonomikorik ez duten zergadunek lehentasunezko jarduerari emandako kopuruengatik.

DO3: Kenkaria jarduera ekonomikoa zuzeneko zenbatespenean egiten duten zergadunek lehentasunezko jarduerari emandako kopuruengatik.

DO4: Kenkaria kultur mezenasgoaren aldeko dohaintzengatik.

CUO: Kenkaria langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik.

PPD: Kenkaria pertsona desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenengatik

POL: Kenkaria alderdi politikoen aldeko kuota edo ekarpenengatik.

OTR: Bestelako kenkariak

DIG: Kenkaria nazioarteko zergapetze bikoitzarengatik, karga tasa orokorra denean.

DIA: Kenkaria nazioarteko zergapetze bikoitzarengatik, karga tasa aurrezpenarena denean.

TRA: Kenkaria langileek enpresan parte hartzeagatik.

ENC: Kenkaria sorrera berriko entitate berritzaileak finantzatzegatik.

EPC: Kenkaria hazkunde prozesuan dauden entitateak finantzatzegatik.

CET: Kenkaria langileek entitatea eratzeagatik.

RAR: Kenkaria errentamenduak jaisteko gastu gisa aplikatu ez den soberakinagatik

«Seme-alaba kopurua» eremua beteko da kenkaria aplikatzen bada urteko mantenua ordaintzeagatik.

«Enpresaren IFZ edo IFK» eremua eta «Enpresaren izena» eremua beteko dira baldin eta TRA, ENC, EPC, DO2, DO3, DO4 eta CET motako kenkariak aplikatzen badira.

«Portzentaje kengarria» eremua bete behar da, DIG eta DIA motako kenkarietan izan ezik.

